

06

TXOSTENA

2006



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Aurkibidea

I. SARRERA	6
Zerbitzu-erakundeen mapa	7
II. ESTRATEGIA	
Misioa, ikuspegia eta baloreak	8
Helburu estrategikoak	10
Erabateko kalitatea	11
Kudeaketa klinikoko unitateak	12
2006ko beste proiektu garrantzitsu batzuk	15
Aitormenak	19
Erakundearen argitalpenak	22
Interes bereziko arautegia	23
III. PERTSONAK	24
Plantilla	24
Hautaketa eta lanpostuak betetzea	30
Emaitzak pertsonengan	38
Prozesuen araberrako kudeaketa	46
Lanbide-garapena	46
Lan-osasuna	50
Ordainsariak	52
Hizkuntz normalizazioa	53
Negoiazio kolektiboa	54
Lan-jurisdikzioa	55
IV. BALIABIDEAK	56
Arkitektura eta ingeniari-tza	56
Informazio sistemak eta teknologiak	59
V. PROZESUAK (jarduera)	61
Jarduerari buruzko zenbait gogoeta	61
Lehen mailako atentzio-ko jarduera	63
Akutu-entzako eta egonaldi ertain eta luzeko ospitale-eko jarduera	65
Asistentzia psikiatriko-ko eta osasun mentaleko jarduera	71
Emergentzietako jarduera	73
Atentzio espezializatuko beste programa batzuetako jarduera	75
VI. EMAITZAK	83
Emaitzei buruzko zenbait gogoeta	83
Antzemandako kalitatea	84
Bitarteko eta azken emaitzak: lehen mailako atentzioa	88
Bitarteko eta azken emaitzak: akutu-entzako eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak	89
Bitarteko eta azken emaitzak: asistentzia psikiatriko-ko eta osasun mentala	102
Bitarteko eta azken emaitzak: atentzio espezializatuko beste programa batzuk	102
Kostuak	107
VII. URTEKO KONTUAK	110
Egoera-balantzea	110
Galera eta irabazien kontua	112

Presentación memoria

I. Sarrera

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Osasun Sailari atxikitako zuzenbide pribatuko Ente Publikoa da. Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Legeak dioenaren arabera, badu bere nortasun juridikoa eta ahalmen osoa bere helburua betetzeko, hau da, zerbitzu sanitarioak eskaintzeko, bere menpean dauden zerbitzu-erakundeen bidez.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea, egoera soziosanitarioaren arabera, hiru mugape geografiko (osasun-barrutiak deiturikoak) hauetan zatituta dago: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Barruti bakoitzean lehen mailako atentzioa egoki antolatu eta atentzio espezializatuarekin koordinatzea bermatzen da. Horrela, bada, Osakidetzaren barruan ondoko zerbitzu sanitarioak daude:

► **Lehen mailako atentzioa:**

- 7 osasun-eskualde
- 310 osasun-zentro

► **Ospitaleko atentzioa:**

- Akutuentzako 11 ospitale
- Egonaldi ertain eta luzeko 3 ospitale

► **Osasun mentala:**

- Akutuentzako ospitaleetan integratutako Psikiatriako 5 zerbitzu
- Psikiatriako 4 ospitale monografiko
- Ospitalez kanpoko osasun mentaleko 3 barruti. Horietako bat Psikiatriako ospitale monografiko batean dago integratuta

► **Beste batzuk:**

- Emergentziak
- Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa
- Osatek S.A.

Zerbitzu sanitarioak eskaintzeko egitura publikoak honela antolatuta daude Osakidetzako Estatutuen arabera (255/1997 Dekretua):

► **Erakunde nagusia:**


- **Presidentetza:** Osasun sailburua, Ente Publikoaren eta horren Administrazio Kontseiluaren ordezkaria dena. Ente Publikoaren operazioak gainbegiratu eta horren eskubide zein interesak defendatzen ditu.
- **Administrazio Kontseilua:** kide anitzeko organoa, batez ere Ente Publikoaren jarduerak zuzendu eta kontrolatzen dituen eta Autonomia Erkidegoko Administrazioa ordezkatzeko duten bost kidek osatua, presidenteaz gainera.

► **Administrazio eta kudeaketa korporatiboko erakunde zentrala:** Administrazio Kontseilua laguntzeko zuzendaritza-egitura osatzen du, eta bere zuzendaritza-atribuzioak hauek dira: zerbitzu-erakundeei dagokienez, kontrolatzea, estrategia koordinatzea, eta kudeaketa-eskumenetan laguntzea edo eskumen hori gauzatzea. Erakunde zentralaren organoak honela egituratuta daude:

- Zuzendaritza Nagusia
- Asistentzia Sanitarioko Dibisioa
- Ekonomia eta Finantzako Dibisioa
- Giza Baliabideetako Dibisioa

► **Zerbitzu sanitarioetako erakundeak:** osasun-zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta horretarako, ekonomia eta finantzako autonomiaren eta kudeaketaren printzipioa hartzen dute aintzat.

Zerbitzu-erakundearen mapa



- ♥ Ospitalez kanpoko osasun mentala
- % Emergentziak
- # Akutuentzako ospitalea
- \$ Ospitale psikiatrikoa
- " Egonaldi ertain eta luzeko ospitalea
- ! Transfusioen eta Giza Ehunen Euskal Zentroa

II. Estrategia

■ Misioa, ikuspegia eta baloreak

Misioa

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren misioa, EAEko sistema sanitarioaren funtsezko alderdia izaki, bertako herritarrei zerbitzu sanitario publikoak ematea da, euren osasun-beharrizanak betetzeko, ekitate, efizientzia eta kalitatearen printzipioei jarraiki, osasuna sustatu, prebenitu, zaindu eta hobetzeko jardueren garapenaren bitartez.

Aipatutakoa lortzeko, ondokoak hartzen ditugu gure gain:

- ▶ Pazientea, gure jarduera asistentzial guztiaren erdigune eta helburu gisa.
- ▶ Pertsonen garapena, funtsezko balore gisa helburuak bete ahal izateko.
- ▶ Berrikuntza eta ikerkuntza, aldaketara egokitzeko adierazle gisa.
- ▶ Ezagutzaren kudeaketa aktiboa, gure zentroen arteko koordinazioaren eta elkarlanaren bitartez.
- ▶ Kudeaketa sistema eragingarria, parte-hartzailea, koordinatua eta etengabeko hobekuntzara begira dagoena.

Horrela, ondokoak lortu ahal izango ditugu:

- ▶ Gure pazientea gogobetetzea.
- ▶ Gure langileak gogobetetzea eta Osakidetzako helburuen aldeko ahaleginean parte hartu dezaten lortzea.
- ▶ Giza baliabideak eta baliabide materialak eragingarritasunez eta efizientziaz kudeatzea.
- ▶ Erkidegoaren garapenari gure ahalegina gaineratzea.

Ikuspegia

Osakidetzak pazienteari begira dagoen erakunde sanitario bikaina izan nahi du.

Ikuspegiaren definizioak ondokoak dakartza berekin:

- ▶ Osakidetzak izaera publikoko erakunde sanitario gisa eratu eta jardun nahi du.
- ▶ Bikaintasunaren aldeko apustua egiten du, faktore bereizle gisa, bere jardueraren alor guztietan
- ▶ Bere zeregina pazienteari begira dago guztiz.

Baloreak

Osakidetzak, hornidura sanitarioarako sistema publikoa den aldetik, sinesteez eta baloreez osatutako sistema bat eratu du, bere misioari eta etorkizunerako proiektuari erantzuteko. Balore-multzo horretan biltzen diren ezaugarri kulturelek pentsatzeko, baloratzeko eta jokatzeko modua definitu behar dute Erakundeko pertsona guztientzat

Ondoko bost balore hauek –denborari dagokionez, iraunkorrak, eta, egokitzen ahal diren dagokionez, malguak– Osakidetzako identitate-ezaugarria osatzen dute, bai barrura, bai kanpora begira.

Bezeroari begira: Jarduera asistentzialaren erdigunea pazientea da, eta bere osasunaren beharrezanek bideratu behar dute jarduera guztien irizpide nagusia, betiere, Pazienteen Eskubide eta Betebeharren Kartarekin sintonian.

Bezeroari begira jartzea ezartzen duen balore horrek Erakundearen aldetik eskatzen dituen jokaeretatik ondokoak dira espezifikoenak:

- ▶ Pertsona modu integralean kontsideratzea.
- ▶ Tratu zuzena eta pertsonalizatua.
- ▶ Informazio egokia ematea garaiz.
- ▶ Bezeroen testuinguru linguistikoa errespetatzea eta Euskara sartzen joatea eurenganako tratuan.

Profesionaltasuna: Gaitasun teknikoa, kudeaketako gaitasuna eta pertsonen ardura dira eraginkortasuna eta kalitatea lortzeko faktore nagusiak.

Profesionaltasunak eskatzen dituen jokaeretatik ondokoak dira espezifikoenak:

- ▶ Ezagupenak etengabe eguneratzea.
- ▶ Diagnostiko eta tratamenduan eragingarriak izatea.
- ▶ Nork bere esparruan bere jardura arduraz betetzea.

Berrikuntza eta etengabeko hobekuntza: Erakunde osoaren eta bere zentroen erantzukizuna da ingurumen sanitarioaren behar eta eskari berriei irtenbide berritzaileen bitartez erantzuna ematea.

Berrikuntza eta etengabeko hobekuntzaren alde egiteak ondoko joera espezifikoak eskatzen ditu:

- ▶ Aldaketetara etengabe egokitzea.
- ▶ Aurrera egiteko eta ekimenez jokatzeko jarrera aktiboa.
- ▶ Denok era aktiboan parte hartzea.

Helburuekiko konpromisoa: Misioa beteko bada, pertsona guztiak Osakidetzaren helburuekin identifikatzea eta helburu horiek lortzeko parte hartzea, bete beharreko baldintzak dira.

Helburuekiko konpromisoa ondoko jokaera espezifikoetan agertzen da:

- ▶ Talde-lana.
- ▶ Jardueren planifikazioa eta helburuen lorpena.
- ▶ Lortutako emaitzen erantzukizuna gainean hartzea.
- ▶ Kontrola eta plangintza, segimendua eta hobekuntza egiteko mekanismoak ezartzea.

Emaitzei eta efizientziari begira egin beharreko lana: Osakidetzak, baliabide publikoak kudeatzen dituen aldetik, kudeaketako alor guztietan eragingarritasuna, efizientzia eta kalitatea lortzeko erantzukizuna dauka.

Emaitzei begira lan egiteak ondoko jokaera espezifikoak eskatzen ditu:


- ▶ Zorroztasuna, baliabideak erabiltzeko garaian.
- ▶ Baliabide horiek errentagarri bihurtzea.

Helburu estrategikoak

Datozen urteetako helburu korporatiboak misioaren, ikuspegiaren eta baloreen definizioarekin bat datozela –eta horiekin koherentzia– planteatzen ditu Osakidetza. Kontuan hartzen du ingurumenean gerta daitezkeen aldaketen eragina, eta bere ahalmenak eta baliabideak baliatzen ditu.

Helburuen asmoa da bezero/pazienteei euren zerbitzura, eragingarritasunera eta kalitatera bideratutako sanitatea eskaintzea, helburu horietan pertsonak inplikatur, eta erakundeak bideratuz enpresaren kudeaketa eta teknologiaren etengabeko garapenari begira. Bost dira:

1. BEZERO/PAZIENTEAREN ZERBITZUA
2. PERTSONEN INPLIKAZIOA
3. ERABATEKO KALITATEA
4. ENPRESA- ETA KUDEAKETA-GARAPENA
5. IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA



Erabateko kalitatea

Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioa

2006. urtean Osakidetzak Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioaren Patronatuko lehen lehendakariordetza bere gain hartu du.

European Foundation for Quality Management ereduaren bidezko ebaluazioak

1. Kanpo-ebaluazioak:

- ▶ 2006an zehar, Osakidetzako sei erakundek lortu dute Euskalit/Kalitaterako Euskal Fundazioaren sariak: Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeak urrezko Q, kanpo-ebaluazioan 500 puntuak gainditu ostean; eta zilarrezko bost Q, Lehen Mailako Atentzioko eskualde hauentzat: Araba, Bilbao eta Gipuzkoako Mendebaldea, eta Bizkaiko Ospitalez Kanpoko Osasun Mentala eta Zamudioko Ospitalea, horiek guztiek kanpo-ebaluazioan 400 puntuak gainditu ondoren.

2. Euskaliteko ebaluatzaileen Kluba:

- ▶ Osakidetzak Euskalitek akreditutako EFQMko 120 ebaluatzaile ditu. Horietako askok enpresen kanpo-ebaluazioetan parte hartu dute, Enpresa-kudeaketaren Kalitatearen Euskal Saria emateko.

Kudeaketa klinikoko unitateak

Lehen Mailako Atenzioan ondorengo unitateek funtzionatu dute kudeaketa klinikoko kontratutuen bidez:

2005

Arabako eskualdea

Aranbizkarra II
Arabako Mendialdea
San Martin
Sansomendi
Lakuabizkarra
Abetxuko
Nanclares de Oca
Alde Zaharra
Lakua-Arriaga
Arabako Lautada
Iparralde-Legutiano
Errioxa
Aranbizkarra I
La Habana
Olagibel
Haranak I
Haranak II
Zaramaga
Olarizu

Bilboko eskualdea

Abusu
Alde Zaharra
San Ignazio
Mesedeetakoa
Errekaldeberri
San Adrian
Santutxu-Solokoetxe
Otxarkoaga
Santutxu-El Karmelo
Javier Sáenz de Buruaga
Basurtu
Bolueta
Etxaniz suhiltzailea
Indautxu

Ezkerraldea-enkarterriesk

Santurtzi Mamariga
DesertU
Güeñes
Sestao Markontzaga
Trapagaran
Portugalete Errepelega
Zuazo

2006

Arabako eskualdea

Abetxuko
Aranbizkarra I
Aranbizkarra II
Alde Zaharra Gasteiz
Iruña de Oca
La Habana
Lakua-Arriaga
Lakuabizkarra
Arabako Lautada
Arabako Mendialdea
Iparralde-Villarreal
Iparralde-Zuia
Olagibel
Olarizu
Errioxa
San Martin
Sansomendi
Haranak I
Haranak II
Zaramaga

Bilboko eskualdea

Basurtu
Begoña
Bolueta
Etxaniz suhiltzailea
Alde Zaharra (Bilbao)
Indautxu
Javier Sáenz de Buruaga
Karmelo
Mesedeetakoa
Abusu
Otxarkoaga
Errekalde
San Adrian
San Ignazio
Santutxu-Solokoetxe
Zorrotza
Zurbaran

Ezkerraldea-enkarterriesk

Abanto-Muskiz
Balmaseda
Desertu
Güeñes
La Paz
Lutxana
Ortuella
Portugalete Erdialdea
Portugalete Errepelega
San Bizente
Santurtzi Kabiezes
Santurtzi Mamariga
Sestao Kueto
Sestao Markontzaga
Trapagaran
Zaballa K.
Zaballa O.Z.
Zalla
Zuazo

2005

Gipuzkoako ekialdeko eskualdea

Oiartzun
 Altza
 Beraun
 Intxaurreondo
 Iztietia
 Lasarte
 Pasai Antxo
 Pasai San Pedro
 Alde Zaharra
 Gros
 Lezo
 Zumaia
 Amara-Erdialdea
 Egia
 Irun-Erdialdea
 Zarautz
 Amara Berri
 Bidebieta
 Hernani
 Hondarribia
 Dunboa
 Loiola
 Ondarreta

Gipuzkoako mendebaldeko esk.

Villabona
 Torrekua
 Arrasate
 Ermua
 Ibarra
 Oñati
 Azkoitia
 Beasain
 Andoain
 Elgoibar
 Azpeitia
 Deba
 Eibar
 Legazpi
 Ordizia
 Leintz Gatzaga
 Zumarraga

Barrualdeko eskualdea

Abadiño
 Arratia
 Basauri-Ariz
 Aiala
 Basauri-Kareaga
 Durango
 Gernikaldea
 Etxebarri
 Galdakao
 Gernika
 Laudio
 Lekeitio
 Markina
 Ondarroa
 Amorebieta
 Arrigorriaga
 Bermeo

2006

Gipuzkoako ekialdeko eskualdea

Altza-Erroteta
 Amara Berri
 Amara Erdialdea
 Beraun - Erretereria
 Bidebieta
 Dunboa
 Egia
 Gros
 Hernani - Urnieta - Astigarraga
 Hondarribia
 Intxaurreondo
 Irun - Erdialdea
 Iztietia - Erretereria
 Lasarte - Usurbil
 Lezo - San Juan
 Loiola
 Oiartzun
 Ondarreta
 Alde Zaharra
 Pasai Antxo
 Pasai San Pedro
 Zarautz - Orio - Aia
 Zumaia - Zestoa - Getaria

Gipuzkoako mendebaldeko esk.

Alegia
 Andoain
 Arrasate
 Azkoitia
 Beasain
 Bergara
 Eibar
 Elgoibar
 Ermua
 Ibarra
 Lazkao
 Legazpi
 Oñati
 Ordizia
 Tolosa
 Torrekua
 Leintz Gatzaga
 Villabona
 Zumarraga

Barrualdeko eskualdea

Abadiño - Elorrio - Berriz
 Aiala
 Amorebieta
 Arratia
 Arrigorriaga
 Basauri-Ariz
 Basauri-Kareaga
 Bermeo
 Durango
 Etxebarri
 Galdakao
 Gernika
 Gernikaldea
 Lekeitio
 Laudio
 Markina-Xemein
 Ondarroa

2005

Uribeko eskualdea

Erandio
Gorliz-Plentzia
Txorierri
Leioa
Mungia

2006

Uribeko eskualdea

Algorta
Astrabudua
Erandio
Gorliz-Plentzia
Areeta
Leioa
Mungia
Sopelana
Txorierri

2006ko beste proiektu garrantzitsu batzuk

Lehen Mailako Atentzioa

Praktika klinikoko gidak

- ▶ 2006an praktika klinikoko bost gida prestatzen aritu gara: hipertentsio arterialeko gida errebisatzen, Lunbalgiako gidak, Hipercolesterolemia, Diabetes Mellitus 2. mota eta zainketa aringarriak.

Kalitatea kudeatzeko sistema

- ▶ Kalitatea kudeatzeko sistemaren batzorde teknikoak bukatu egin du prozesuak berriro egiten eta horiek unitate guztietara hedatu dira.
- ▶ 2006. urtean beste 12 unitatek lortu dute kalitatea kudeatzeko sistema egiaztatzea bezeroak atenditzeko eremuan eta 12 eremu osoan, jarraian zehazten den moduan:

	Eremu OSOA	BAE eremuan
BARRUALDEA	Gernika Gernikaldea Abadiño Arratia	Basauri-Ariz
BILBAO	Alde zaharra Santutxu-Solokoetxe	Etxaniz suhiltz Sagarminaga
GIPUZKOA MEND.	Ibarra Billabona	Elgoibar
ARABA	Sansomendi Zaramaga	Abetxuko Arabako lautada
EZKERRALDEA- ENKARTERRI	Lutxana Sodupe-Güeñes	Markontzaga Zaballa k.
GIPUZKOA EKIALDEA		Lezo-Pasai-Donibane Hondarribia
URIBE		Mungia Sopelana

- ▶ Unitate hauek sartuta, kalitatea kudeatzeko sistema ISO 9001:2000 arauaren bidez egiaztatuta dago 56 unitatetan bezeroak atenditzeko eremuan eta 29 eremu osoan.

Ahoko antikoagulazioa

- 2006. urtean zehar ahoko antikoagulazioaren kontrolaren garapena hedatu egin da lehen mailako atentzioan unitate hauetara:

ESKUALDEA	ZENTRO KOP.	PAZIENTE ANTIKOAGULATUAK
ARABA	11	942
GIPUZKOA MEND.	31	2.327
GIPUZKOA EKI.	14	2.744
BILBAO	23	2.293
EZKERRALDEA ENKARTERRI	6	386
URIBE	14	692
BARRUALDEA	1	234
GUZTIRA		9.618 (54,5% de los pacientes potenciales a controlar en atención primaria)

**Pazienteak sailkatzea
“Adjusted clinical
groups” (ACG)
sistemaren arabera**

- 2005. urtean datuen ustiaketa hasi zen pazienteak ACGetan sailkatzeko azken urteko datuekin.
- Hau bigarren aldia izango da Osakidetza sareko kupo guztiak case-mix sistema baten bidez sailkatzen direla, gaixotze-tasa eta eraginkortasuna aztertzeko bai bisitetan bai deribazioetan, analitikan eta proba osagarrietan.

Informatizazioa

- Erabilera-datuen arabera familiako medikuntzako eta pediatriako kontsultetako ziten %78,5ean historia kliniko elektronikoa erabiltzen da.

ARABA	%86,3
BILBAO	%79,6
EZN-ENK	%65,9
GIPUZKOA EKIALDEA	%81,6
GIPUZKOA MENDEBAL.	%84,4
BARRUALDEA	%78,7
URIBE	%69,6
EAE	%78,5

Lehentasunezko eskaintzaren ebaluazioa

- ▶ 3s-Osabiden PAP (Programatutako Aktibitateen Programa) ezarri ostean, Kontratu Programaren lehentasunezko eskaintza ebaluatzen da modu automatizatuan, poblazioari buruzko datuak erabiliz, maila guztietan alderatu daitezkeenak.
- ▶ Funtzionalitate horrek profesional sanitarioei gogoraraztea errazten du eta herritarrengan orokorrean eta patologia kroniko zehatzak dituzten herritarrengan aktibitate prebentibo eta programatuen jarraipena egitea.

Atentzio Espezializatua

Antolakuntza funtzionala

- ▶ Bizkaian Psikiatriako Ospitale Monografikoen Berrantolaketa Sektorialaren Plana martxan jartzea.
- ▶ Debagoieneko Ospitalea handitzeko Plan Funtzionala.
- ▶ Optikoekin koordinatzeko proiektua garatzea paziente oftalmologikoen atentzioan laguntzeko.
- ▶ Asistentzia psikiatrikoa eta osasun mentala Lagun Arorekiko hitzarmenenean sartzea.

Informatizazioa (e-Osabide)

- ▶ Txagorritxu Ospitalean modulu hauek hasia:
 - Segurtasuna eta sarbideak
 - Antolatze-egitura
 - Pazienteak kudeatzea
 - Onarpena
 - Programazio kirurgikoa
- ▶ San Eloy Ospitalean Errehabilitazioko modulua hasia.
- ▶ Farmaziako modulua garatzea eta zitazio eta erradiologiako modulua egokitzea.

Praktika klinikoa

- ▶ Aurpegiko kirurgia konpontzailea martxan jartzea lipoatrofia duten paziente seropositiboengan.
- ▶ Hazia garbitzea martxan jartzea laguntza bidezko ugalketan erabiltzeko GIBari serodiskordanteak diren bikoteengan.
- ▶ Osakidetzan alarma metabolikoa ezartzea.
- ▶ Beka komisionatuetan parte hartzea.
- ▶ Gripe-pandemiaren kontingentzia-planak.
- ▶ Titietako minbizia goiz detektatzeko planaren adina handitzearen pilotajea.

Emergentziak

Antolakuntza

- ▶ Erizaintza duen bizi-euskarriko anbulatzia bat martxan jartzea Donostian.
- ▶ Erizaintzako baliabidea ezartzea, prozedimentazioa Kantabriarekin eta protokolizazioa eskualdeko Lehen Mailako Atentzioarekin, Enkarterri Eskualdean premiazko asistentzia hobetzeko.
- ▶ Prozedimentazioa Baionako SAMUrekin asistentzia sanitarioa behar duten herritarrak atenditzeko mugaren alde batean edo bestean.

Teknologia

- ▶ Komunikazio erradiofonikoen TETRA sistema Erkidego osoan hedatu eta ezartzea.

Informazioa

- ▶ Koordinazio zentroetatik Osabide eta Clinic sistematarako sarbidea orokortzea erabaki asistentzialak hartzea errazteko.
- ▶ Emergentzia Medikoetako Benchmarking Clubean parte hartzea, Estatuko 12 erkidego autonomotako emergentzietako zerbitzuek martxan jarri dutena.

Praktika Klinikoa

- ▶ Bizi-euskarri aurreratuko anbulantzietako profesional ez-sanitario guztientzako prestakuntza DEA erabiltzeko.
- ▶ SCACEST aurrean jarduteko protokoloan parte hartzea Gipuzkoako lurraldean.

Prebentziorako tresnak

- ▶ Aurreikus daitezkeen arrisku-egoeretan 41 prebentzio-gailu planifikatu, diseinatu, parte hartu eta jarraitzea.

Aitormenak

- ▶ Zilarrezko Q kudeaketako bikaintasunari, Eusko Jaurilaritzak emana Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdeari eta zilarrezko Q ondorengo hauei: Bilboko Eskualdea, Arabako Eskualdea, Gipuzkoako Mendebaldeko Eskualdea, Bizkaiko Ospitalez Kanpoko Osasun Mentala eta Zaldibarko Ospitale Psikiatrikoa. Sei sari hauek gehitzen zaizkie aurreko urteetan lortutako hamabostei: Bidasoako Ospitalea (zilarrezko Q eta urrezko Q), Zumarragako Ospitalea (zilarrezko Q eta urrezko Q), Arabako Psikiatrikoa eta Ospitalez Kanpoko Osasun Mentala (zilarrezko Q eta urrezko Q), Basurtuko Ospitalea (zilarrezko Q), Zamudioko Ospitalea (zilarrezko Q), Debagoieneko Ospitalea (zilarrezko Q), Santa Marina (zilarrezko Q), Gipuzkoako Ospitalez Kanpoko Osasun Mentala (zilarrezko Q), Gipuzkoako Ekialdeko Eskualdea (zilarrezko Q) eta Uribe (zilarrezko Q) eta Osatek (zilarrezko Q). Gainera, 2005ean Zumarragako Ospitaleak lortu duen kudeaketa bikaintasunari emandako sari europarra (PrizeWinner).
- ▶ Arabako Ospitale Psikiatrikoa eta OKOMek lortu du Avedis Donabedian saria psikitriako eta osasun mentaleko bikaintasunari.
- ▶ Osakidetza 1. saria lortu du Profesor Barea sarietan “Proyectos Multientidad” atalean.
- ▶ ISO ziurtagiriak:

2006 bukatutakoan bazeukaten ISO ziurtagiria zentro eta zerbitzu hauek:

- **Arabako Eskualdea:** harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Olagibel, San Martin, Aranbizkarra I, Aranbizkarra II, Sansomendi, La Habana, Zaramaga. Lakua-Arriaga, Olarizu, Abetxuko eta Arabako Lautadako zentroetan. Gainera, Alde Zaharra, Lakuabizkarra eta Arabako Mendialde, Sansomendi eta Zaramagako zentroek hedadura osoa daukate eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- **Bilboko Eskualdea:** harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Errekaldeberri, San Ignazio, Alde Zaharra, Santutxu-Solokoetxe, Basurtu-Altamira, Javier Sáez de Buruaga, Abusu, Etxaniz Suhiltzailea eta Sagarmínagako zentroetan. Gainera San Adrian, Santutxu-El Karmelo, Mesedeetako, Alde Zaharreko eta Santutxu-Solokoetxe zentroek hedadura osoa dute eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- **Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdea:** harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Muskiz-Gallarta, Mamariaga, Portugalete-Errepelega, Balmaseda, La Paz, Trapaga, Zalla, Desertu, Sodupe, Zuazo, Markontzaga eta Zaballako zentroetan. Gainera Lutzana eta Sodupe-Güñesko zentroek hedadura osoa dute eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- **Gipuzkoa Ekialdeko Eskualdea:** harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Ondarreta, Errenteria-Beraun, Egia, Amara Erdialdea, Irun Erdialdea, Oiartzun, Lasarte-Usurbil, Lezo-Pasai Donibane eta Hondarribiako zentroetan. Gainera, Alde Zaharra eta Zumaia-Zestoa-Getariako zentroek hedadura osoa dute eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- **Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdea:** harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Torrekua, Ibarra, Arrasate, Beasain, Lazkao, Ermua, Zumarraga eta Elgoibarko zentroetan. Gainera Oñati, Ibarra eta Villabonako zentroek hedadura osoa dute eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- **Barrualdeko eskualdea:** harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Abadiño, Markina, Bermeo, Igorre, Laudio eta Basauri-Arizko zentroetan. Gainera Landako-lurreta eta Kareaga-San Migel, Aiala, Etxebarri, Ondarroa, Gernika, Gernikalea, Abadiño eta Arratiako zentroek hedadura osoa dute eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.

- **Uribeko Eskualdea:** harrera, informazio eta kudeaketa administratiboko zerbitzuak Astrabudua, Algorta, Areeta, Erandio, Txorierri, Mungia eta Sopelako zentroetan. Gainera Leioa eta Plentzia-Gorlizko zentroek hedadura osoa du eta horren barruan sartzen da lehen mailako atentzioko asistentzia sanitarioa ematea arlo hauetan: medikuntza orokorra, pediatria eta erizaintza, proba diagnostikoak egitea eta komunitatean esku hartze sanitarioko programak.
- **Gurutzetako Ospitalea:** elikadura, mantentze-lan orokorrak, ingeniartza elektronikoa, segurtasun eta ingeniartza, ostalaritza, ekonomia-finantzako kudeaketa, urgentzia pediatrikoak, etxeko ospitalizazioa, historia klinikoaren artxiboa, biokimikako laborategia, mikrobiologiako laborategia, hematologiako laborategia, metabolopatient laborategia, ikerkuntzako laborategia eta unitate pre-postanalitika.
- **Donostia Ospitalea:** horniketa kudeatzea, erradioterapia, kanpo-kontsultak eta anatomia patologikoko laborategia eta urgentziak.
- **Basurtuko Ospitalea:** anatomia patologikoa, presazko analisietako unitatea, terapia antineoplasikoa, ospitalizazio psikiatrikoa eta haur-gazteentzako, etxeko ospitalizazioa, pediatriako urgentziak, ospitalizazio neurologikoa, erditze-prozesua eta puerperioa, garbiketa, mantentze-lanak, laborategiak, pertsonala, informazio-sistemak, honikuntza eta biltegia, ekonomia-finantzakoa eta odol-bankua.
- **Galdakaoko Ospitalea:** farmakoak ematea kanpo-bezeroei, terapia antineoplasikoa, diagnostiko biologikoko probak, azterketa zitologikoak, histologikoak eta autopsiak, hemoderibatuen transfusioa, aktiboen mantenimendua, hornikuntza eta logistika, ekonomia-finantzakoa, pazienteen elikadura eta material esterilak.
- **Txagorritxu Ospitalea:** sukaldia, atentzio farmazeutikoa kanpo-bezeroei, larrialdietako laborategia, biokimikako laborategia, pazienteak eta erabiltzaileak atenditzeko zerbitzua, esterilizazioa eta odol-bankua.
- **Debagoieneko Ospitalea:** pazienteak onartzea eta historia klinikoaren artxiboa, ospitalizatutako paziententzako medikamentuak, pazienteak eta erabiltzaileak atenditzea, odol bankua, materiala esterilizatzea, erizaintzako onarpena eta atentzioa, larrialdietako laborategia, analisi klinikoetako laborategia, erradiodiagnostikoa, anatomia patologikoa, larrialdiak eta mantentze-lanak.
- **Bidasoako Ospitalea:** kirurgiarik gabeko ingresua, analisi klinikoetako laborategia, anatomia patologikoko laborategia, erradiologia, historia klinikoaren onarpena eta artxiboa, hondakin biosanitarioak kudeatzea, sukaldaritza, garbiketa, mantentze-lanak, materiala esterilizatzea, inegurunea kudeatzea ISO 14001:1996, ekonomia-finantzakoa, hornikuntza, lorazaintza eta ikuztegia.
- **Mendaroko Ospitalea:** esterilizazioa, atentzio farmazeutikoa, azterketa erradiologikoak eta laborategia.
- **San Eloy Ospitalea:** laborategia, odol bankua, esterilizazioa eta Farmazia.
- **Santiago Ospitalea:** janariak prestatzea, medikuntza nuklearra, dokumentazioa eta artxiboa, garbiketa, ospitalizazioa eta jate-portaeraren tratamendua, erradiologia eta medikuntza intentsiboa.
- **Zumarragako Ospitalea:** liburutegia, proba erradiodiagnostikoak, anatomia patologikoa, materiala esterilizatzea, kanpo-kontsultetako eta larrialdietako onarpena, pazienteak atenditzea, pazienteari eta asistentzia soziala, hornikuntza, arropa eta arropa zuria garbitzea, ordainketak, ekipoak eta instalazioak konpontzea, lan osasuna, hondakinak kudeatu, garraiatu eta biltegitratzea, ingurumena kudeatzea ISO 14001:1996, hemodialisia, kudeaketa kontablea, informatika, errehabilitazioa, dokumentazio klinikoak, PVPCIN, mantentze-lanak eta pertsonala.
- **Gorlizko Ospitalea:** kudeaketa farmakoterapeutikoa eta onarpena eta dokumentazioa.
- **Santa Marina Ospitalea:** pazienteak onartzea, analisi klinikoak, erradiologia, farmazia, artxiboa eta ingurumena kudeatzea ISO 14001:1996.
- **Bermeoko Ospitalea:** farmakoterapia, ekonomia-finantzako kudeaketa eta ospitale barne-kanpoko errehabilitazioa.
- **Zaldibarko Ospitalea:** kudeaketa farmakoterapeutikoa, ekonomia-finantzako kudeaketa, errehabilitazioa egonaldi ertainean, errehabilitazioa komunitatean, errehabilitazioa egonaldi ertain-luzean.
- **Zamudioko Ospitalea:** analisi klinikoak, farmazia, liburutegia, garbiketa, errehabilitazioa ospitalizazioan eta errehabilitazio psikosoziala komunitatean.
- **Arabako Ospitale Psikiatrikoa:** kudeaketa farmakoterapeutikoa, pertsonalaren kudeaketa administratiboa, Psikosi errefraktarioa duen pazienteraren tratamendua, eboluzio luzeko arazo mental larria duen pazientearen errehabilitazioa, gerontopsikiatria eta alkoholismoa.
- **Transfusio eta giza ehunen euskal zentroa:** erakunde osoa.
- **Osatek:** asistentzia sanitarioa irudi bidezko diagnostikoa rehabilita.

Hurrengo orrialdean agertzen da aitormenen egoera-koadroa Osakidetza zerbitzu-erakundeetan.

ERAKUNDEEN KANPO-AITORMENAK (ISO ETA EFQM)

		ISO	EFQM		
		Egiaztagiria	Bikaintasun konpromiso-aren diploma	>300 puntu Euskaliten kanpo ebaluazioan	Zilarrezko Q Eusko Jaurilaritza
Arabako Eskualdea	5 zentro (osorik) 9 zentro (BAE bakarrik)				
Bilboko Eskualdea	5 zentro (osorik) 7 zentro (BAE bakarrik) ekonomia-finantzakoa				
Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdea	2 zentro (osorik) 11 zentro (BAE bakarrik)				
Gipuzkoako Ekialdeko Esk.	2 zentro (osorik) 9 zentro (BAE bakarrik) ingurumena 14001 erantzunkizun sozial korporatib.				
Gipuzkoako Mendebaldeko Esk.	4 zentro (osorik) 7 zentro (BAE bakarrik)				
Barrualdeko Eskualdea	9 zentro (osorik) 6 zentro (BAE bakarrik)				
Uribeko Eskualdea	2 zentro (osorik) 7 zentro (BAE bakarrik)				
Gurutzetako Ospitalea	15 prozesu				
Donostia Ospitalea	5 prozesu				
Basurtuko Ospitalea	16 prozesu				
Galdakaoko Ospitalea	10 prozesu				
Txagorritxu Ospitalea	7 prozesu				
Debagoieneko Ospitalea	12 prozesu				
Bidasoako Ospitalea	13 prozesu ingurumena 14001				
Mendaroko Ospitalea	4 prozesu				
San Eloy Ospitalea	4 prozesu				
Santiago Ospitalea	7 prozesu				
Zumarragako Ospitalea	20 prozesu ingurumena 14001				
Gorlizko Ospitalea	2 prozesu				
Santa Marina Ospitalea	5 procesos ingurumena 14001				
Bermeok Ospitalea	3 prozesu				
Zaldibarko Ospitalea	5 prozesu				
Zamudioko Ospitalea	6 prozesu				
Arabako Osp. Psik. eta OKOM	6 prozesu				
Bizkaiko Osp. Kanp. Osas. Ment.					
S.M. Extrahospitalaria Gipuzkoa					
Transf. eta Giza Ehunen Euskal Zentroa	erakunde osoa				
Txagorritxuko Erizaintzako Unibertsitate Eskola					
Osatek	erakunde osoa				

BAE: bezeroak atenditzeko eremua

Erakundearen argitalpenak

Inprimatuak

- ▶ **Manual Usuario de Enfermería.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- ▶ **Osakidetzaren urteko memoria 2005.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- ▶ **UNIPAR 2003.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- ▶ **UNIPAR 2004.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- ▶ **UNIPAR memoria hiru hizkuntzatan laburtua.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- ▶ **Euskara Plana.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- ▶ **kastea gizartearen onurako aurrera egiteko / Aprender para avanzar en beneficio de la sociedad.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- ▶ **Uribeke Eskualdeko zilarrezko Q - Memoria.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- ▶ **EAEko transplanteen txostena.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.
- ▶ **Basurtuko Ospitaleko zilarrezko Q - Memoria.** Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua. Vitoria-Gasteiz. 2006.

Komunikazio Medikoko Unitatea > Jardueraren laburpena 2006

▶ Ikusentzunezko produkzioa	
– Egindako bideoak	59
– Masterizazioa eta autoretza DVD	126
– Multimediako aurkezpenak	61
– Zinta bikoiztea / CD / DVD	812
– Bideo digitala prozesatu eta kodifikatzea	236
– Material grafikoa egitea	191
– Irudiaren tratamendu digitala	1.758
▶ Asistentzia teknikoa	38
▶ Aholkularitza komunikazioan	33
▶ Prestakuntza eta irakaskuntza	71

Erakundearen argitalpenak > Bideografikoak

59 bideo zientifiko eta sanitario egin dira eta horietatik %59 Bizkaiko zentroetakoak dira, %26 Gipuzkoakoak eta %15 Arabakoak, gaien arabera honela sailkatzen direnak:

– Kirurgia orokorra	10
– Kirurgia endoskopikoa	16
– Bestelako espezialitate kirurgikoak	14
– Espezialitate medikoak	11
– Osasun-hezkuntza	5
– Zerbitzu orokorrak eta beste batzu	3

Osasun zientzietako ikusentzunezko argitalpenen fondoak badauzka 1.017 erregistro.

Interes bereziko arautegia



Arau-mota	Argit data*	Aipamena
31/2006 Dekretua	2006/3/15	Zentro, zerbitzu eta establezimendu sanitarioen baimena.
65/2006 Dekretua	2006/4/5	Euskadiko sistema sanitarioan prozedura kirurgiko programatu eta ez-urgenteetara sartzeko gehienezko epeak ezartzea.
8/5/2006 Agindua	2006/6/9	Euskadin diabetes mellitusari buruzko Aholku Kontseilua eratzea.
8/5/2006 Agindua	2006/6/9	Euskadin zirkulazio-aparatuko gaixotasunei buruzko Aholku Batzordea eratzea.
8/5/2006 Agindua	2006/6/9	Creación del Consejo Asesor sobre el Cáncer en Euskadi
16/5/2006 Agindua	2006/6/9	Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren ekitaldi zientifikoek interes sanitarioa aitortzea arautzea.
2/2/2006 Akordioa	2006/3/2	2006ko ekitaldian zerbitzu sanitarioak eta irakaskuntzakoak emateagatik ordaintzera behartuta dauden hirugarrenentzako tarifak onartzea.
20/7/2006 Akordioa	2006/8/23	Ente Publikoaren 2006ko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea.
19/6/2006 Akordioa	2006/12/28	Osakidetza kudeatzen dituen fitxategi pertsonalak arautzea.

(*) Dekretu, Agindu eta Akordioek argitaratze-data Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarikoa da.

III. Pertsonak


Plantilla

Langileen banaketa talde profesionalaren arabera




PLANTILLA GUZTIRA : 22.416


Plantillaren banaketa erakundearen motaren arabera




Arabako plantillaren banaketa



Gipuzkoako plantillaren banaketa




Bizkaiko plantillaren banaketa




Plantillaren ezaugarriak


Generoaren araberako banaketa




Adin-Piramidea




Genero eta adin-taldekoen araberako banaketa



Genero eta talde profesionalen arabera



Adin eta talde profesionalen arabeko banaketa



Plantillaren plangintza eta antolamendua

	Fakultatiboak	Sanitario ez-fakultatiboak	Zerbitzu orokorrak	Funtzio administratiboa	Guztira
Lekualdaketak	56	92	44	47	239
Egokitzapenak	71	111	125	29	336
Hierarkizazioa/ Integrazioa	44	7			51

Plantilla funtzionalak garatu eta onartzea

2005ko uztailaren 20an, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak Osakidetzako zerbitzu-erakunde guztien eta bere erakunde zentralaren plantilla funtzionala onartu zuen, kategoria eta lanpostu funtzionalen arabera. Txosten horretan 565 lanposturen errekonbertsioa sartu da eta 300 lanpostu berri sortu dira plantilla estrukturalaren beharrak finkatzeko. Urte bukaeran, Osakidetzaren plantilla estrukturala talde profesionalen arabera ondorengo hau da:

Talde profesionala		Efektiboen gehienezko kopurua
A.1	Fakultatibo mediko eta teknikoak	5.264
A.2	Goi-mailako teknikariak	366
B.1	Diplomadun sanitarioak	7.061
B.2	Erdi-mailako teknikariak	201
C.1	Teknikari espezialista sanitarioak	626
C.2	Administrazioko teknikari espezialistak	539
C.3	Teknikari espezialista sanitarioak	191
D.1	Teknikari laguntzaile sanitarioak	3.859
D.2	Administrazioko teknikari laguntzaileak	1.849
D.3	Teknikari laguntzaile profesionalak	421
E.1	Operarioak	2.197
PD	Zuzendaritza-karguak	142
Guztira		22.716

Osakidetza zuzenbide pribatuko ente publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren 10. artikulua ezarritakoaren arabera, zerbitzu-erakunde bakoitzeko zuzendari gerenteak plantilla funtzionala onartu zuen, 2006ko abenduaren 22ko ebazpenaren bidez, lanpostu funtzional bakoitzeko efektibokopurua dena. Ebazpen horiek ondorioak izan dituzte 2007ko urtarilaren 1ean.

Behin onartutakoan, ebazpen guztiak argitaratu dira bai Intranet korporatiboan bai zerbitzu-erakundeetako iragarki-tauletan. Eta une horretan hasi da interesdunei jakinarazteko tramitea, aipatu 186/2005 Dekretuak ezartzen duen moduan.

Hautaketa eta horniketa

Enplegu publikoaren eskaintza

Sanitateko Mahai Sektorialean 2005eko bigarren seihiilekoan Enplegu Publikoaren Eskaintza berri baten negoziazio-prozesuari ekin ondoren, betiere kontuan hartuta urriaren 6ko 304/1987 Dekretuan (ordezkapen-organoei, hautaketa-prozesua erregulatzeari, lan-baldintzak zehazteari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoetan lan eginten duten langileen partehartzeari buruzkoa) xedatutakoa, zeina irailaren 4ko 228/1990 Dekretuaren bidez aldatu baita, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak 2006ko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartu du, 2006ko uztailaren 20ko Akordioaren bidez, betiere azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 8.5.f) artikuluan araututakoaren arabera, zeinaren bidez Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen baitira, hala nola, oro har, ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, Euskadiko Antolakuntza Sanitarioari buruzkoak, Ente Publikoaren pertsonalari dagokionez araututakoari jarraituz, eta osasun zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatuto Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legean araututakoaren arabera.

Sanitateko Mahai Sektorialaren negoziazio-prozesua 2006ko uztailaren 10ean amaitu zen, CCOO, SME, LAB eta UGT sindikatuek sinatuta. Bertan, Osakidetzako Enplegu Publikoaren Eskaintza artikulatzeko oinarri izan behar ziren baldintza orokorrak ezarri ziren.

Aurrekoa kontuan hartuta, zuzendari nagusiak proposatuta eta Ente Publikoaren Estatutuetako 8.5.f) artikuluan araututakoari jarraituz, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak erabaki hauek hartu ditu:

- 1)** Osakidetzako Enplegu Publikoaren Eskaintzaren deialdia egitea, bertako pertsonal estatutario finko izateko. Hautaketa-prozesuei ekiteko jardunen kudeaketa Akordio honek beharrezko birtualitate juridikoa lortzearekin batera hasiko da.
- 2)** Deialdi hori amaitutakoan, beste Enplegu Publikoaren Eskaintza bat deitzea 2008ko bigarren seihiilekoan. Deialdi horretan sartuko dira, adostuko diren baldintzetan, sistemaren baja begetatiboen ondorioz sortuko diren lanpostu hutsak, hala nola, erakundeak enplegua finkatzeko eta epealdi horretan zerbitzu berriak sortzeagatik hazteko hartutako konpromisoagatik Osakidetzaren plantila estrukturalako lanpostuak. Deialdi horren aurretik, gutxienez, lekualdatze-lehiaketa bat egingo da.
- 3)** 2006ko deialdian aterako diren lanpostuak zehazteko irizpideak hauek dira:
 - ▶ 2005eko abenduaren 31n interinoek betetako lanpostu hutsak.
 - ▶ 2005eko abenduaren 31n lanpostu huts gisa zeuden lanpostu hutsak, baina interinoek betetakoak.
 - ▶ 2005eko abenduaren 31n lanpostu huts gisa zeudenak baina orain zerbitzu-eginkizunetan beteta daudenak.
 - ▶ Denboraldi baterako barne sustapen bidez betetako lanpostuak.
 - ▶ Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 17ko 1429tik 1433/2005era bitarteko Ebazpen bidez deitutako Sanitateko Mahai Sektorialaren 2006ko urriaren 21eko Akordioan onartutako lekualdatze lehiaketan deitutako lanpostuak, betiere lehiaketa-prozesuko edozein fasetan esleitu gabeak, eta ondoriozko fasea amaitzean esleipendunek hutsik uzten dituztenak.
 - ▶ Orain aldi baterako enplegua duten langileek betetzen dituzten 300 lanpostu, betiere Akordio honen xede den enplegua finkatzeko prozesuaren ondorioz, Osakidetzako osoan dauden lanpostu hutsak egokituz edo berregituratuz.
 - ▶ Orain aldi baterako enplegua duten langileek betetzen dituzten 300 lanpostu, Akordio honen xede den enplegua finkatzeko prozesuaren ondorioz, Osakidetzako plantila areagotzeko eranskinean jasotako 300 lanpostuak, hain zuzen.

- Lanpostu hutsa arauz bete arte izendapen interinoa gauzatzeko 2006ko ekainean Lehen Atentzioko Eskualdeetan ezohiko izaeraz esleitutako fakultatiboen 11 lanpostuak. Lanpostu horiek eranskinean jasotzen dira.

Akordio hau sinatzen den egunean, irizpide hauen arabera eskainitako lanpostu-kopurua: 4.261 lanpostu dira guztira. Lanpostu-kopuru hori zuzendu egingo da akatsen bat gertatuz gero.

2006an jasotako eskabideak hauek dira, guztira:


Txanda librea	79.085
Aldi baterako 3. xedapena	42
84 aurreko Erizaintzako Laguntzaileak	13
Barne Sustapeneko Txanda	1.171
Minusbaliatuen Txanda	2.004
ONARTUTAKO GUZTIAK	82.315
BAZTERTUTAKO GUZTIAK	6.762
BALIOGABETUTAKO GUZTIAK	250
ESKABIDE GUZTIAK	89.327

Azpimarratu beharra dago tamaina eta ezaugarri hauekako lehen EPEa dela, eta eskabide guztiak telematika bidez egin direla, www.osanet.net, web orriaren bidez, paperezko euskarri fisikorik gabe. Horrek administrazio-gastuak aurrezteko ekarri du, datuak erraz sartu eta kontsultatzea, eta edozein puntutatik sartzeko aukera izatea, gorabehera handirik gabe. Sistema horrek, gainera, izena emateko kuota-ordainketa telematika bidez egitea ahalbidetu du, barra-kodea irakurtzeko sistema erabiliz finantza-entitate laguntzaileekin koordinatuta.

Guztira 108 kategoria izan ziren deituak, eta abenduaren 6, 7 eta 8an lanpostu gehieneko 24 kategoriei zegozkien lehen probak egin ziren Barakaldoko BEC-en, ondorengo ematzekin:

Kategoria		Data	Plazak	Onartuak	Adm./Plaza	Aurkeztuak	Emak.	Giz.	Gaindituak	Emak.	Giz.	Gaind./Plaza	Gaind./aurk.		
Adm. laguntzailea eta erab. atend.	Adm. laguntzailea eta erab. atend.	06/12/06	457	11.459	25,07	10.001	%87,28	8188	1813	7.466	%74,65	6090	1376	16,34	%74,65
	Erizaintzako laguntzailea	06/12/06	636	11.527	18,12	10.776	%93,48	9688	1093	10.071	%93,46	9056	1020	15,83	%93,46
	Zeladorea	06/12/06	304	19.829	65,23	15.994	%80,66	10000	5994	14.072	%87,98	8939	5133	46,29	%87,98
	Optika eta optometriako diplomaduna	06/12/06	1	66	66,00	58	%87,88	44	14	55	%94,83	41	14	55,00	%94,83
	Osasun mentaleko erizaina	06/12/06	50	160	3,20	151	%94,38	120	31	151	%100,00	120	31	3,02	%100,00
	Familiako medikua	06/12/06	402	1986	4,94	1858	%93,55	1128	702	1802	%96,99	1117	685	4,48	%96,99
	Erradioterapiako teknikaria	06/12/06	28	131	4,68	124	%94,66	97	27	117	%94,35	90	27	4,18	%94,35
	Administraria	07/12/06	39	3.344	85,74	2.620	%78,35	2131	489	1.906	%72,75	1563	343	48,87	%72,75
	Famaziako laguntzailea	07/12/06	8	386	48,25	351	%90,93	316	35	306	%87,18	274	32	38,25	%87,18
	Sukaldaria	07/12/06	10	643	64,30	557	86,63%	272	285	551	%98,92	268	283	55,10	%98,92
	Lan osasuneko erizaina	07/12/06	5	220	44,00	190	%86,36	149	41	140	%73,68	112	28	28,00	%73,68
	Fisioterapeuta	07/12/06	42	1.277	30,40	1.129	%88,41	874	255	579	%51,28	446	133	13,79	%51,28
	Anatomia patologikoko teknikaria	07/12/06	20	188	9,40	170	%90,43	134	36	152	%89,41	118	34	7,60	%89,41
	Dietetikako teknikaria	07/12/06	3	231	77,00	196	%84,85	175	21	173	%88,27	154	19	57,67	%88,27
	Dokumentazio sanitarioko teknikaria	07/12/06	5	177	35,40	158	%89,27	133	25	22	%13,92	15	7	4,40	%13,92
Informatikako teknikaria	Informatikako teknikaria	07/12/06	39	771	19,77	640	%83,01	193	447	127	%19,84	32	95	3,26	%19,84
	Laborategiko teknikaria	07/12/06	68	1.641	24,13	1.483	%90,37	1294	189	644	%43,43	546	98	9,47	%43,43
	Terapeuta okupazionala	07/12/06	7	196	28,00	158	%80,61	145	13	72	%45,57	68	4	10,29	%45,57
	Logopediako diplomaduna	08/12/06	3	124	41,33	105	%84,68	93	12	81	%77,14	71	10	27,00	%77,14
	Erizaina	08/12/06	976	8.438	8,65	7.932	%94,00	6793	1135	7.447	%93,89	6392	1059	7,63	%93,89
	Emagina	08/12/06	62	183	2,95	169	%92,35	154	15	162	%95,86	147	14	2,61	%95,86
	Zerbitzuetao operarioa	08/12/06	114	8.341	73,17	6.925	%83,02	4863	2047	6.731	%97,20	4731	1970	59,04	%97,20
	Elektromedik. inst. teknikaria	08/12/06	6	58	9,67	46	%79,31	2	44	7	%15,22	0	7	1,17	%15,22
	Erradiodiagnostikoko teknikari.	08/12/06	106	835	7,88	797	%95,45	643	154	280	%35,13	224	56	2,64	%35,13%
	GUZTIRA		3.391	72.211	21,29	62.588	%86,67	47.629	14.917	53.114	%84,86	40.614	12.478	15,66	
76,10% 23,83%															
76,47% 23,49%															

2006ko Azterketak



Lekualdatze-lehiaketa

2006an lekualdatze-lehiaketako deialdiaren lehenengo fasea burutu da eta bertan 653 destino behin betiko esleitu eta lanpostuaz jabetu dira, 57 kategoria/lanpostu funtzionalekoak zirenak.

2006ko azken hiruhilekoan lekualdatze-lehiaketako deialdiaren bigarren fasea hasi da hasiera batean deitutako lanpostuak esleitutakoan hutsik geratzen diren destinoekin. Gauzak horrela 194 destino eskaini dira pertsonal ez-sanitarioaren eta teknikari espezialisten deialdian, 18 kategoria/lanpostu funtzionalekoak zirenak.

Fakultatibo mediko eta teknikoak	Diplomadun sanitarioak	Teknikari espezialistak	Laguntzaile sanitarioak	Pertsonal ez sanitarioa	Guztira
----------------------------------	------------------------	-------------------------	-------------------------	-------------------------	---------

1. fasea

Eskainitako destinoak	145	252	25	114	211	747
Eskabideak	243	978	56	294	420	1991
Esleitutako destinoak	121	251	20	109	152	653
Esleitu gabeko destinoak	24	1	5	5	59	94

2. fasea (Ondorengoak)

Eskainitako destinoak	117	205	20	95	174	611
Eskabideak	66	424	23	76	189	778

LANPOSTUEN DEIALDIAK

Deialdi espezifikoak

Deialdi espezifikoen kopurua, denak intraneten argitaratuak, 2006an zehar:

Lehiaketa-sistema	Izendapen askeko sistema	Guztira
-------------------	--------------------------	---------

BURUZAGITZAK:

Aldi baterako barne-promozioa	28	69	97
Zerbitzu-eginkizunak			38
Guztira			54
			189

Zuzendarien deialdiak

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
-------	---------	----------	---------

Zuzendariak	2	8	3	13
Zuzendariordeak	7	0	5	12
Guztira	9	8	8	25

LMAUB deialdia

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira
-------	---------	----------	---------

LMAUB	5	8	0	13
-------	---	---	---	----

Aldi baterako kontratazioa

OSASUN-BARRUTIETAN EGINDAKO IZENDAPENAK TALDE PROFESIONALAREN ARABERA

	Guztira		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
A1 Fakultatibo mediko eta teknikoak	24.726	%18,62	3.535	%14,91	7.468	%16,31	13.723	%21,68
Medikua	24.067	%18,13	3.475	%14,66	7.168	%15,66	13.424	%21,21
Farmazeutikoa	263	%0,20	44	%0,19	143	%0,31	76	%0,12
Odontologoa	253	%0,19	9	%0,04	76	%0,17	168	%0,27
Biologoa	30	%0,02	0	%0,00	2	%0,00	28	%0,04
Psikologoa	113	%0,09	7	%0,03	79	%0,17	27	%0,04
A2 Goi-mailako teknikariak	52	%0,04	6	%0,03		%0,08	10	%0,02
Goi-mailako teknikaria	19	%0,01	2	%0,01	14	%0,03	3	%0,00
Goi-mailako beste tituludun batzuk	33	%0,02	4	%0,02	22	%0,05	7	%0,01
B1 Diplomadun sanitarioak	43.301	%32,61	7.622	%32,14	15.711	%34,32	19.968	%31,55
Erizaina	41.580	%31,31	7.417	%31,28	15.132	%33,06	19.031	%30,07
Emagina	109	%0,08	26	%0,11	36	%0,08	47	%0,07
Fisioterapeuta	1612	%1,21	179	%0,75	543	%1,19	890	%1,41
B2 Erdi-mailako teknikariak	140	%0,11	8	%0,03	77	%0,17	55	%0,09
Ingeniari teknikoa	5	%0,00	1	%0,00	3	%0,01	1	%0,00
Gizarte-langilea	73	%0,05	5	%0,02	31	%0,07	37	%0,06
Erdi-mailako beste tituludun batzuk	62	%0,05	2	%0,01	43	%0,09	17	%0,03
C1 Teknikari espezialista sanitarioak	4.162	%3,13	539	%2,27	1.719	%3,76	1.904	%3,01
Erradiologiako teknikari espezialista	2.328	%1,75	298	%1,26	1.009	%2,20	1.021	%1,61
Laborategiko teknikari espezialista	1.572	%1,18	187	%0,79	584	%1,28	801	%1,27
Anatomiako teknikari espezialista	237	%0,18	45	%0,19	126	%0,28	66	%0,10
Medikuntza nuklearreko teknikari espezialista	25	%0,02	9	%0,04	0	%0,00	16	%0,03
C2 Administrazioko teknikari espezialistak	361	%0,27	94	%0,40	213	%0,47	54	%0,09
C3 Teknikari espezialista profesionalak	551	%0,41	175	%0,74	165	%0,36	211	%0,33
D1 Teknikari laguntzaile sanitarioak	25.147	%18,94	5.322	%22,44	7.984	%17,44	11.841	%18,71
D2 Administrazioko teknikari laguntzaileak	14.744	%11,10	2.382	%10,05	5.828	%12,73	6.534	%10,32
D3 Teknikari laguntzaile profesionalak	3.333	%2,51	486	%2,05	744	%1,63	2.103	%3,32
E1 Menpekoak/Operarioak	16.235	%12,25	3.543	%14,94	5.832	%12,74	6.890	%10,89
Zeladorea	9.235	%6,98	1.528	%6,44	3.853	%8,42	3.884	%6,14
Zerbitzuetako operarioa	7.000	%5,27	2.015	%8,50	1.979	%4,32	3.006	%4,75
	132.782	100,00%	23.712	100,00%	45.777	%100,00	63.293	%100,00

OSASUN-BARRUTIETAN EGINDAKO IZENDAPENAK HARREMAN JURIDIKOAREN ARABERA

	Guztira		Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
Interinoak	1.367	%1,03	256	%1,08	501	%0,79	610	%1,33
Ordezkoak	68.637	%51,69	14.739	%62,16	29.235	%46,27	24.663	%53,75
Aldi baterakoak	62.778	%47,28	8.717	%36,76	33.448	%52,94	20.613	%44,92
	132.782	%100,00	23.712	%100,00	63.184	%100,00	45.886	%100,00

IZENDAPENAK GENEROAREN ARABERA

	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
A1 Fakultatibo mediko eta teknikoak	24.726	%18,62	7.697	%37,07	17.029	%15,20
A2 Goi-mailako teknikariak	52	%0,04	20	%0,10	32	%0,03
B1 Diplomadun sanitarioak	43.301	%32,61	3.949	%19,02	39.352	%35,13
B2 Erdi-mailako teknikariak	140	%0,11	13	%0,06	127	%0,11
C1 Teknikari espezialista sanitarioak	4.162	%3,13	435	%2,10	3.727	%3,33
C2 Administrazio teknika espezialistak	361	%0,27	21	%0,10	340	%0,30
C3 Teknikari espezialista sanitarioak	551	%0,41	273	%1,31	278	%0,25
D1 Teknikari laguntzaile sanitarioak	25.147	%18,94	1.066	%5,13	24.081	%21,50
D2 Administrazio teknika laguntzaileak	14.744	%11,10	1.551	%7,47	13.193	%11,78
D3 Teknikari laguntzaile profesionalak	3.333	%2,51	1.431	%6,89	1.902	%1,70
E1 Menpekoak/Operarioak	16.265	%12,25	4.306	%20,74	11.959	%10,68
	132.782	%100,00	20.762	%100,00	112.020	%100,00

Kontratazio-akordioaren garapen gisa, profil zehatza duten lanpostuak kontratatzeko protokoloak ezarri dira. Lanpostu hutsak eta erreserbatuak betetzeko kontratazio hauek egin dira:

Talde profesionala	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
A	10	7	3
B		1	
C	3	3	
D	3		2
GUZTIRA	16	11	5

Zerbitzu-eginkizunak

Koadroaren ezkerreko atalak adierazten du Osakidetzan lanpostua jabetzan duen pertsonalari baimendutako zerbitzu-eginkizunen kopurua, beste Erkidego batzuetako osasun-zerbitzuetan lan egiteko. Bestalde, eskumako atalean agertzen dira beste osasun-zerbitzu batzuetan lanpostua jabetzan izanda Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan zerbitzu-eginkizunak eman zaizkienak.

DESTINOA BESTE OSASUN-ZERBITZU BATZUETAN		BESTE OSASUN-ZERBITZU BATZUETATIK ETORRIAK	
Baimenak	Luzapenak	Baimenak	Luzapenak
4	25	16	33

► Emaitzak pertsonengan

Pertsonen gogobetetzearen ebaluazioa

Ekitaldi honetan 23 Erakundetan neurtu da pertsonen gogobetetze maila, eta horrela lortu dira bigarren neurketa- eta ebaluazio-ziklo osoa burutzeko datuak. Or ohar, plantilla osoari banatuz aio inkesta, salbu eta Erakunde batzuetan, non neurketa laginketa aleatorio baten arabera egin baita, lanbide-taldeak eta sexuak plantillan duten proportzioa kontuan hartuta.

Ondoren emango diren datuek hau adierazten dute:

- 2006ko ekitaldian egindako gogobetetzearen ebaluazioaren emaitzak (23 zerbitzu-erakundetan)
- Lehenengo ebaluazio-zikloa (2001-2003ko aldia) eta bigarren ebaluazio-zikloa (2004-2006ko aldia) konparatuz datozen emaitzak.

Erakunde batzuek inkesta bi aldiz egin dute ebaluazio-ziklo berean. Orduan, azkenaren datuak baizik ez dira kontuan hartu.

PERTSONEN GOGOBETETZEA NEURTZEKO INKESTA KORPORATIBOA ZENBAT ALDIZ ERABILI DEN

ERAKUNDE MOTA	Ebaluazioaren lehenengo zikloa			Ebaluazioaren bigarren zikloa		
	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Ospitale orokorrak	2	1	5		1	5
Ospitale monografikoak	2	2	5	3	1	4
Eskualde-ospitaleak	2	2	2	1		5
Lehen mailako atentzioa	1	1	7	2	4	5
Beste erakunde batzuk			5		1	4
GUZTIRA	7	6	24	6	7	23

2006ko pertsonen gogobetetzaren gaineko neurketaren emaitzak

Ondoren 2006an neurketa egin duten Erakundeen partaidetzaren gaineko datuak emango dira. Partaidetzaren ehuneko orokorra %42,73 da (bataz bestekoen bataz bestekoa).

Erakunde batzuek (2) laginketa aleatorio batean egin dute inkesta. Laginketa horrek kolektibo bakoitzak populazioan duen benetako proportzioa bete du. Horregatik, partaidetza-indizea beste erakundeen datuetan oinarritu da..

PARTAIDETZA


MOTA

2006

Kop

Partaidetza %etan


Ospitale orokorrak	5(*)	26,47
Eskualde-ospitaleak	5	45,31
Ospitale monografikoak	4	35,27
Eskualdea	5(*)	50,17
Beste erakunde batzuk	4	56,43
GUZTIRA	23	42,73



Gogobetetze orokorraren batz besteko eta dimentsioen arabera emaitzak. 2006ko erabilerak


Ondoko taulan, 2006an inkesta erabili duten 23 Erakundeek batz besteko emaitzak aurkezten dira, dimentsioen arabera keta gogobetetze orokorrari dagozkionak. Hau izan da gogobetetze-indize altuago aizan duten dimentsioen hurrenketa: laneko giroa, arduradunaren eta laguntzailearen arteko harremanak, lan-baldintzak. Hauek dira, goitik beherako hurrenkera batean, gogobetetze-mailarik apalena duten dimentsioak: ordainketa, prestakuntza eta aitorpena. Gogobetetze orokorra 2.87koa da.

2006ko aplikazioen gogobetetze orokorraren batz besteko eta dimentsioen arabera



Gogobetetze orokorra erakunde motaren arabera


Erakunde mota kontuan hartuta egon daitezkeen aldeei begiratzen bazaie, balioespenik positiboena “beste erakunde batzuk” kontzeptuarekin agertzen da; aitzitik, negatiboena ospitale orokorretan agertzen da.



Konparatiboa dimentsioen ara- berako emaitzak	Arduradun laguntz. arteko harremanak	Lan-giroa	Lan- baldintzak	Identifikazioa eta lanbide garapena	Komunikazioa	Segurtasuna eta lan-osasuna	Antolakuntza eta hobekuntza	Ordainsariak	Parte hartzea	Helburuak ezag. eta halekin identifik.	Altortzea	Zuzendari- tzaren pertzepzioa	Prestakuntza
O.S.1	3,13	3,27	3,04	2,94	2,89	2,46	2,62	2,36	2,68	2,62	2,47	2,43	2,65
O.S.2	3,10	3,29	2,89	3,05	2,78	2,42	2,58	2,47	2,59	2,56	2,54	2,32	2,40
O.S.3	3,28	3,35	2,99	2,98	2,79	2,39	2,60	2,12	2,64	2,56	2,43	2,43	2,37
O.S.4	3,07	3,20	2,85	2,95	2,75	2,40	2,61	2,51	2,49	2,53	2,45	2,34	2,22
O.S.5	3,37	3,56	3,02	3,06	2,90	2,59	2,80	2,60	2,73	2,76	2,68	2,57	2,54
O.S.6	3,35	3,48	3,21	3,14	3,07	2,70	3,10	2,57	3,10	2,98	2,85	2,88	2,65
O.S.7	3,52	3,26	3,18	3,01	2,86	2,38	2,52	2,43	2,64	2,58	2,61	2,31	2,90
O.S.11	3,20	3,05	3,44	3,17	2,82	2,66	2,85	2,87	2,91	2,76	2,66	2,95	2,79
O.S.8	3,08	3,40	3,04	2,96	2,61	2,56	2,46	2,44	2,42	2,38	2,45	2,22	2,35
O.S.9	3,21	3,45	3,00	3,09	2,92	2,66	2,74	2,49	2,65	2,62	2,56	2,65	2,26
O.S.10	3,46	3,61	3,11	3,14	3,09	2,81	3,11	2,59	3,01	2,89	2,96	2,76	2,77
O.S.12	3,00	3,36	3,30	3,11	2,80	2,46	2,87	2,93	2,73	2,82	2,36	2,90	2,70
O.S.13	3,12	3,03	3,09	3,08	2,73	2,58	2,57	2,56	2,47	2,64	2,5	2,56	2,46
O.S.14	3,31	3,47	3,38	3,31	3,04	2,78	2,85	2,82	2,83	2,88	2,80	2,80	2,66
O.S.15	3,40	3,11	3,11	3,20	3,09	2,66	2,79	2,48	2,99	3,11	2,83	2,76	2,58
O.S.16	2,96	3,07	3,21	2,98	2,84	2,59	2,60	2,28	2,67	2,75	2,41	2,51	2,40
O.S.17	3,16	3,18	3,24	3,10	3,00	2,75	2,80	2,44	2,75	2,82	2,51	2,71	2,36
O.S.18	3,30	3,16	3,27	3,19	3,14	2,71	2,82	2,58	2,84	2,88	2,65	2,70	2,90
O.S.19	3,36	3,32	3,33	3,14	3,16	2,71	2,97	2,58	2,97	3,05	2,70	2,86	2,93
O.S.20	3,29	3,19	3,20	3,29	3,01	2,67	3,02	2,77	2,77	2,98	2,60	3,19	2,89
O.S.21	3,54	3,46	3,31	3,16	3,09	3,06	2,75	3,00	3,00	2,93	2,88	2,81	2,79
O.S.22	3,28	3,52	3,05	3,08	3,09	2,89	3,10	2,80	2,91	3,23	2,92	3,17	2,62
O.S.23	3,83	3,83	3,70	3,32	3,26	3,04	3,07	2,52	3,08	3,10	2,77	3,05	2,79

Hobekuntzak egiteko lehentasunak

Posizionamendu-matrizeak bi kontzeptu erlazionatzen ditu: dimentsioan dagoen gogobetetze-maila eta dimentsio horrek gogobetetze-mailan duen eragina. Posizionamendu-matrizeak agerian utzi du Erakundeek ondoko dimentsioekin lotuta dauden arloak jotzen dituztela lehentasunekotzat:




Emaitzen konparatiboa pertsonen gogobetetasuna neurtetan 2001-2003 aldia 2004-2006 aldia

Pertsonen gogobetetasuna neurtzeko lehenengo ziklo osoa, 2001-2003 aldia hartuta 29 zerbitzu-erakunderen emaitzak jasotzen dituen, bigarren ziklo osoa den 2004-2006 neurtze-aldiarekin alderatzen da atal honetan, 29 zerbitzu-erakundetan neurtutako gogobetetasunaren emaitzak biltzen dituen.


Jarraian erakusten dira aldi bien arteko konparatiboaren daturik esanguratsuenak.

Parte hartze-indizea

Bukatu berri den zikloaren (2004-2006) parte hartze-indizea, aurreko neurtze-aldiarekin (2001-2003) konparatuta, apur bat jaitsi da eta horrela 2001-2003 aldian %49,95 izatetik 2004-2006 aldian %45,11 izatera pasatu da.



Gogobetetze globalaren indizea igo da aurreko neurtze-aldiarekin alderatuta, oraingo aldian puntuazio globala 2,93 delako eta aurrekoan 2,87 izan zen.



Puntuazio horren desgloseak, inkesta egituratzen den hamairu dimentsioetan, ondorengo grafika ematen du. Bertan ikusten da dimentsio guztiak nabarmen igo direla, Lanari eta Ordainsariei dagozkien dimentsioetan izan ezik, hurrenez hurren 0,05 eta 0,08 jaitsi direnak. Igoerarik nabarmenena dimentsio hauetan gertatu da: Helburuak ezagutu eta identifikatzea (+0,14), Arduradun-laguntzailearen arteko harremana (+0,13), Lan-giroa (+0,11), Komunikazioa (+0,11) eta Zuzendaritzaren pertzepzioa (+0,11).



Prozesuen araberako kudeaketa

Prozesuen araberako kudeaketa giza baliabiden eremuan ezartzeko proiektuari dagokionez, 2006an ondorengo ekintzak egin dira hedatze aldera:

1. Osakidetzako zerbitzu-erakundeetarako prozesuen araberako kudeaketa-gidaliburua prestatzea
2. Pertsonen kudeaketa-prozesuaren gidaliburua azaltzea, hainbat aplikazio-eremutarako, ondorengo erakundeetan:
 - ▶ Zumarragako ospitalean, bi azpi-prozesu barne hartzen dituelarik (ISO ziurtagiria):
 - Giza baliabideen antolaketa
 - Pertsonalaren inkorporazioa, administrazio-kudeaketa eta integrazioa
 - ▶ Basurtuko ospitalean, hiru azpi-prozesu barne hartzen dituelarik (ISO ziurtagiria):
 - Giza baliabideen antolaketa
 - Pertsonalaren inkorporazioa, administrazio-kudeaketa eta integrazioa
 - Sustapena eta mugikortasuna
 - ▶ Gurutzetako ospitalean, ospitale osoa hartzen duelarik:
 - Giza baliabideen antolaketa
 - Pertsonalaren inkorporazioa, administrazio-kudeaketa eta integrazioa
 - Prestakuntza
 - Sustapena eta mugikortasuna
 - Onarpena eta konpentsazioa
 - Segurtasuna eta lan-osasuna
3. Azalpen-fasean, erakundeekin adostuta eta garapen-maila ezberdinetan, pertsonen kudeaketa-prozesuaren gidaliburua ondorengo erakundeetan:
 - ▶ San Eloy ospitalean
 - ▶ Donostia ospitalean
 - ▶ Santiago ospitalean
 - ▶ Zamudioko ospitalean

Lanbide garapena

A.1 taldea.

Azaroaren 22ko 395/2005 Dekretua, A.1 Fakultatibo mediko eta teknikoen lanbide taldeko profesional sanitarioen garapena arautzen duena (abenduaren 2ko EHAA), onartu eta argitaratu ondoren, bere ezarpenari ekiten zaio urtarilaren 19ko 17/2006 Ebazpena argitaratzean. Ebazpen horren bidez 16 urtetik gorako egindako zerbitzuak dituzten profesionalentzako 1. deialdia egiten da (otsailaren 6ko EHAA).

PRESTAKUNTZA Hasitako prestakuntza-saioak bi eratakoak dira: lanbide-garapenaren eredua eta ebaluazio-tresnen gainekoa.

- ▶ **Zerbitzu erakundeetako Pertsonaleko zerbitzuetako langileak eta GBetako zuzendariak:** 3 prestakuntza-saio, lurralde bakoitzean bana, urtarilaren 24tik 26ra.
- ▶ **Ebaluatzaile gisa jardungo duten zerbitzuburu, atalburu edo unitateburuak:** 22 prestakuntza-saio, otsailaren 16tik martxoaren 13ra, gutxi gorabehera 486 arduradun prestatzeko.
- ▶ **Zerbitzu erakundeetako ebaluazio-batzordekideak:** 12 prestakuntza-saio, martxoaren 30etik apirilaren 7ra.

ESKABIDEAK EGITEKO EPEA: Otsailaren 7tik martxoaren 17raino izan zen, eta 2.826 eskabide aurkeztu ziren.

BEHIN-BEHINEKO MAILA ESLEITZEA: Arduradunak dagokion ebaluazioa egin ondoren eta ebaluazio hori zerbitzu erakundeko ebaluazio-batzordeak onartutakoan, eta korporazio-batzordeak koherentzia-azterketa egin ondoren, mailen behin-behineko esleipena egiten da. Osakidetzako GBetako zuzendariaren maiatzaren 29ko 138/2006 Ebazpenaren bidez mailen behin-behineko esleipena onartzen da, eta maiatzaren nominan ordaintzen (ekainaren 28ko EHAA).

GORA JOTZEKO ERREKURTSOA: behin-behineko maila esleitzearen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkezteko epea ekainaren 29an hasten da, eta guztira, 331 gora jotzeko errekurtsu aurkeztzen dira. Horietatik, 74k II. maila lortua zuten jada. Guztiei erantzun zitzaion berariaz, honako emaitza izan zutelarik:

- ▶ Ez-onartuak: 24
- ▶ Atzera botatakoak: 187
- ▶ Partzialki onartuak: 2
- ▶ Onartuak: 44

AMAILA BEHIN BETIKO ESLEITZEA: Errekurtsuak onartzearen ondorioz, aldaketak egin ondoren, Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 19ko 1623/2006 Ebazpenaren bidez, 1. deialdiko mailak behin betiko esleitzen dira (azaroaren 11ko EHAA), Eranskinean azaltzen diren emaitzekin.

Aurreikusitako egutegiari jarraituz, Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 10eko 1622/2006 Ebazpena onartzen da, 5 urtetik gorako egindako zerbitzuak dituzten A.1 taldeko profesionalentzat, lanbide garapeneko 2. deialdia egiten duena (azaroaren 11ko EHAA).

PRESTAKUNTZA: Kontuan hartuta, eredia 1. deialdiko eredu bera zela, eta tresnak ere ez zirela aldatu eta zerbitzu edo unitateetako arduradunak ere berdinak zirela, lurralde bakoitzean prestakuntza-saio bat antolatu zen aurreko deialdian ebaluaziorik egin ez zutenentzat, eta lanegun erdiko 2 saio bere prestakuntza eguneratu behar zutenentzat.

ESKABIDEAK EGITEKO EPEA: 2006ko abenduaren 12tik 2007ko urtarrilaren 19ra


B.1 taldea

A.1 taldeko profesionalen lanbide garapenarekin batera, diplomatu sanitarioen lanbide garapenari buruzko proposamenak planteatu ziren Mahai Sektorialean 2006ko apirila eta ekaina bitartean. Sindikatuei dekretuaren zirriborroa eman zitzaion irailaren amaieran. Urrian zehar, B.1 taldeko profesional sanitarioak arautuko dituen dekretua onartzeko behar den dokumentazioa prestatu zen.


Diplomatu sanitarioen ereduaren zabalkuntzari, 2006ko azaroaren 2an egindako zerbitzu erakundeetako zuzendaritza-taldeak aurkeztearekin ekin zitzaion. Zenbait zerbitzu-erakundeetan ereduari buruzko azalpen-jardunaldiak antolatu ziren unitateetako arduradunentzat batez ere, 2006ko azaroaren 17, 21, 22 eta 23an. Era berean, azaroaren 29an, legez eraturako elkargo erakundeetako diplomatu sanitarioen lanbide garapenaren eredia aurkeztu zen. Hiru lurraldeetako Erizaintzako Elkargoko ordezkariak eta Fisioterapeuten Elkargo Ofizialeko ordezkari bat bertaratu ziren

ERANSKINA


EBALUAZIOAREN EMAITZAK ERAKUNDE-MOTAREN ARABERA



EBALUAZIOAREN EMAITZAK ERAKUNDE-MOTAREN ARABERA: EHUNEKOAK



EBALUAZIOAREN EMAITZAK BLOKE ETA ERAKUNDE-MOTEN ARABERA



A BLOKEA Jarduera asistentziala eta Gaitasun profesionala ebaluatzen ditu

B BLOKEA Etengabeko prestakuntza, Irakaskuntza eta ezagutzaren hedapena eta lerkuntza ebaluatzen ditu.

C BLOKEA Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa ebaluatzen ditu.

Lan-osasuna

Lan-arriskuen prebentzioa kudeatzea

Zuzendaritza nagusiak 2006ko urtarilean onartu zuen 2006-2009rako Prebentzioko Zuzendaritza Plana. Plan horrek Osakidetzan prebentzioan txertatzeko funtsezko alderdiak biltzen ditu, bai eta OHSAS egiaztatze proiektuaren hasiera ere.

Kudeatzeko sistemari dagokionez, prozedura berriak onartu eta berraztertu dira: zioetatikoak segurtasunez erabiltzeko protokoloa eta osasunaren zainketa espezikorako protokoa. Era berean, jada erabiltzen ari diren dokumentu batzuk eta dokumentu informatiboak berraztertu dira.

Kutsatzaile kimikoen (anestesikoak) laginketa higienikoak egiten jarraitu da, eta anatomia patologikoaren arloak amaitu dira.

Osasunagatik egiten diren leku-alaketak irmo izateko prozedura ebatzi da 2006an. 32 kasu aztertu ondoren, bederatziri behin betiko irmotasuna eman zaie.

Osasunaren zainketa

Osasun-azterketak

URTEA	AZTERKETAK		
	Guztira	Hasiera-koak	Aldirokoak (Espezif./orokor)
2001	7.086	2.502	4.584
2002	6.471	2.141	4.216
2003	7.503	2.094	5.263
2004	8.336	3.725	4.461
2005	7.977	3688	4.289
2006	7784	3874	3910

Kontsulta medikoetan, 5871 izan dira hasierakoak eta 1069 aldirokoak; erizaintzako kontsultetan, 2140 izan dira hasierakoak eta 439 aldirokoak.

Lan-istripuak eta laneko gaixotasunak

URTEA	LAN-ISTRIPUAK			LANEKO GAIXOTASUNA	LANEKO ISTRIPU ETA GAIXOTASU- NENGATIK GALDUTAKO LANORDUAK
	GUZTIRA	BAJA MEDIKORIK GABE	BAJA MEDIKOAZ	GUZTIRA	
2001	2.738	1.916	822	69	113.162
2002	2.801	1.953	848	63	135.962
2003	3.116	2.046	1.070	53	140.088
2004	3.125	2.142	983	111	148.365
2005	3.149	2.143	996	53	133.188
2006	2.896	1.983	913	53	177.320

*Hasirako kalkuluak: galdetutako egun naturalak

Osasunagatik egindako leku-aldaketak

URTEA	KASUAK GUZTIRA	ONARTUTAKO KASUAK	BEHIN-BEHINEKOAK
2001	248	213	%85
2002	140	115	%82
2003	170	117	%69
2004	187	157	%84
2005	126	104	%82
2006	209	186	%88

Arrisku biologikoengatik txertoa jartzeko programa

URTEA	DOSIAK GUZT.	H.B.	TETANOA	GRIPEA	B. BATZUK
2001	10.362	2.901	1.343	4.611	1.507
2002	9.782	2.450	1.800	4.188	1.344
2003	11.374	2.168	1.698	6.191	1.319
2004	11.270	2.451	2.208	5.824	784
2005	17.327	2.692	3.250	10.277	1.108*
2006	16.468	2.288	3.112	9.827	1.241

H.B.: b Hepatitis



*1135 dosi, A edo A+B hepatitisaren kontrakoak

Absentismoa

2001		2002		2003		2004		2005		2006	
I.T.	I.G.	I.T.	I.G.	I.T.	I.G.	I.T.	I.G.	I.T.	I.G.	I.T.	I.G.
7,86	9,81	8,60	10,49	8,71	10,69	8,75	11,02	8,75	11,61	8,86	12,11

I.T.: Ezintasun iragankorraren arabera absentismo-indizea.

I.G.: Absentismo orokorraren indizea.

Ezintasun iragankorraren arabera absentismo-indizeen garapena (2006)**Absentismo orokorraren indizeen garapena (2006)****Ordainsariak**

Hona hemen Osakidetzako langileen 2006ko batz besteko ordainsariak, lanbide-taldeen eta asistentzia-eremuaren arabera:

LANBIDE-TALDEA**Ordainsariak ***

Ospitaleko fakult. medikoak eta teknikoak	70.200,84
LMAko fakultatibo medikoak eta teknikoak	57.694,68
Administrazioko goi-mailako teknikariak	43.187,88
Ospitaleko erizainak	34.447,08
Lehen mailako atentzioko erizainak	31.838,40
Administrazioko kudeaketa-teknikariak	32.896,32
Teknikari espezialista sanitarioak	26.780,64
Administrazioko teknikari espezialistak	27.740,16
Teknikari espezialista profesionalak	27.414,12
Teknikari laguntzaile sanitarioak	26.393,76
Administrazioko teknikari laguntzaileak	23.585,16
Teknikari laguntzaile profesionalak	26.360,04
Urgazleak / esku-langileak	23.055,24

* Txosten hau honela atera da: urtean izandako ordainsari guztiak zati lanbide-taldeko langile guztiak.

Hizkuntza Normalizazioa

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko 2006ko deialdia:

HIZKUNTZA ESKAKIZUNA	Atariko probako parte hartzaileak	Proba idatziko parte-hartzaileak	Gainditu dutenak
1HE	3.376	1.869	998
2HE	2.345	1.855	591
3HE	334	194	23
GUZTIRA	6.055	3.918	1.612

Hizkuntza-eskakizuna egiaztatzetik salbuetsia izateko eskabidea aurkezteko deialdia, beti ere araututako arrazoiengatik

SALBUESPENAK	KOPURUA
Adina	383
Ikasketa-maila	1
GUZTIRA	384

Baliokidetutako ziurtagiriak

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA	KOPURUA
1HE	44
2HE	514
3HE	316
4HE	4
GUZTIRA	878

Euskara ikasteko deialdia:

	MATRIKUL	PERTSONAK
Programa trinkoak	782	442
Barnetegiak	50	28
Alfabetatzea	58	52
Ordu bi lanorduetan	86	59
Lanorduz kanpoko ikastaro presentzialak	3.807	2.995
Lanorduz kanpoko autoikaskuntza	234	234
Udako ikastaroak	286	250
Autoikaskuntza (Prestakuntza plan indibidualizatuaren arabera)	224	210
Erakunde Zentraleko autoikaskuntza	72	55
4HE ikastaroa	10	10
Trebakuntzako ikastaro presentziala	52	52
on-line trebakuntza ikastaroa	46	46
Bermeoko Ospitaleko trebakuntza	5	5
Emergentzietako trebakuntza	3	3
Basurtuko Ospitaleko trebakuntza	78	78
Mendebaldeko Eskualdeko trebakuntza	9	9
Bizkaiko Ospitaleaz Kanpoko Osasun Mentaleko trebakuntza	7	7
GUZTIRA	5.809	4.535

OSATUZ Proiektua

- ▶ OSATUZ aldizkaria: hilero 2.700 ale banatzen dira
- ▶ Irratsaioak: 32
- ▶ HABEren web-lanabesak

D 2006ko talde-negoiazioa

Osakidetzako lan-baldintzak arautzen dituen Akordioko xedapen berriak garatzen eta ezartzen jarraitu da ekitaldian zehar. Horrela, batzorde hauek eratu eta ibili dira: lehen mailako atentziokoa, guardiak, laneko arriskuak prebenitzekoak, aukera-berdintasuna, aldi baterako kontratazioa.

Osasuneko Mahai Sektorialeko eta Akordioaren Jarraipena Egiteko Batzorde misto Paritarioaren bilerak egin dira, eta horrela talde-negoiazioa ekintzek ekitaldia amaitu arte iraun dute.

Mahai Sektorialean ordezkartza duten zenbait sindikaturen partaidetza bereziki azpimarratu behar da. Sindikatu horiek parte hartu dute 2005eko Leku Aldaketako epaimahaietan, baina lehiaketa hori batez ere 2006an gauzatu da. Era berean, 2006ko Enplegu Publikoaren Eskaintzako partaidetza aipatu behar da, Osakidetzaren eta LAB, SME, CCOO eta UGTren arteko 2006ko uztailaren 10eko akordioarekin burutu dena. Akordioaren arabera ezarri dira 2006ko Enplegu Publikoaren Eskaintzara deitzeko eta deialdia garatzeko baldintza orokorrak. Eskaintza gauzatzean gerta daitezkeen gorabeherak aztertzearen, sindikatu horiekin batera Jarraipen Batzordea eratu da, eta behin baino gehiagotan bildu dena.

Azkenik, Osasun-arrazoiengatik Lekuz Aldatzeko Batzordea aipatu behar da. Izan ere, mahai Sektorialeko sindikatu guztiek izenpetu dute Batzordearen jarduera-protokoloa, zenbait baldintzatan mugikortasuna behin betikoa izan dadin egina.

Lan-arloko jurisdikzioa

GAIA	KP	ET.	ALDE	AURKA	ERREK.	AURKA EGITEA	TSJPV ALDE	TSJPV AURKA
Lan-istripua	30	4	14	2	1	0	1	0
Alta medikoak	36	8	27	0	0	0	7	1
Antzinasuna	7	0	5	1	0	1	0	0
Kategoria / Funtzioak	1	0	1	0	0	0	0	1
Kargu-uztea edo kaleratzea	8	2	5	2	0	1	12	0
Sakabanatze geografikoko osagarria	0	0	1	0	0	0	0	0
Berariatzko osagarria	2	0	1	0	0	0	0	0
Ospitalizazioko osagarria	1	0	1	0	1	0	0	0
Osagarri pertsonala	6	1	5	0	0	0	0	0
Gatazka kolektiboa	1	1	0	0	0	2	0	0
Kupoa eta kantitatea	0	0	1	1	0	0	3	0
Kalte-galerak	0	0	1	0	0	0	1	0
Desberdintasunak soldatan	7	0	6	1	0	0	1	0
Guardiak	3	0	2	0	3	2	3	0
Ezintasuna eta baliaezintasuna	158	15	147	2	1	0	45	2
Jubilazio berezia 64 urte	1	0	0	0	1	0	0	0
Jubilazio Partziala	16	5	4	4	3	2	0	0
Lan-baldintzak aldatzea	5	0	1	0	0	0	0	0
Mugikortasuna	0	0	1	0	0	1	0	0
Pentsioak	3	0	0	0	0	0	0	0
Lan-luzapena > 65 urte	1	0	1	1	0	0	0	0
Gastuak itzultzea	34	6	18	10	5	7	3	4
Zigorak	2	2	0	1	0	0	0	0
Eskubideen zaintza	2	0	1	0	0	1	1	0
Oporrak, lizentziak eta baimenak	3	1	3	0	0	2	3	0
Besterik	10	1	6	1	0	0	6	0
GUZTIRA	337	46	252	26	15	19	86	8

ET = Etenda

ALDE = Aldeko erabakia

AURKA = Aurkako erabakia

ERREK. = Erregutze-errekurtsoa EHANen aurrean, edo kasaziokoa Auzitegi Gorenean

AURKA EGITEA = Errekurtsoari aurka egitea

TSJPV ALDE = EAEko Auzitegi Nagusiaren aldeko epaia

TSJPV AURKA = EAEko Auzitegi Nagusiaren aurkako epaia

IV. Baliabideak

Arkitektura eta ingeniartza

Osakidetzako Arkitektura eta Ingeniaritzako Zuzendariordetzak proposatutako helburu eta jardura estrategikoen segimendua. Izan ere, zuzendariordetza honen ardura da jarraian adieraziko diren jardura, obra, instalazio eta ekipamenduei dago-kienean.

OBRAK

Arlo honetako jarduerak ulertzen dira 1. helburu korporatiboa lortzea ahalbidetu eta errazten duten azpiegiturak gisa: bezero/pazienteari zerbitzu sanitario integratu, eraginkorra, kalitatekoa, pertsonalizatua eta bizkorra ematea, osasun beharrei erantzuten diena.

Ospitaleko asistentzia

Pazienteari atentzioa emateko lau puntu nagusien azpiegiturak hobetzeko jardurekin jarraitzen da: ospitalizazioko unitateak, larrialdietako zerbitzua, arlo kirurgikoak eta zerbitzu mediko espezializatuak.

► Ospitalizazioko unitateak

Dauden unitateak birmoldatu eta hobetzea

- Lezako (proiektua), Donostia (Arantzazu eraikinean eta proiektua Amara eraikinean) ospitaleetako ospitalizazioko solairuak eta Zamudioko Ospitaleko ospitalizazioko solairuen 3. fasea.

► Larrialdietako zerbitzuak

Egungo zerbitzuak handitu eta birmoldatzea eskaeraren igoerara moldatuz

- Zumarragako Ospitaleko larrialdiak eta Basurtuko Ospitaleko larrialdietako zerbitzua handitzea (proiektua)

► Bloke kirurgikoak

Interbentzio kirurgikoko aldeak handitu eta berritzea

- "A" bloke kirurgikoa Galdakaoko Ospitalean (proiektua).

► Zerbitzu mediko espezializatuak

Orain daudenak hobetzea eta eskaerara moldatzea.

- Txagorritxu Ospitaleko kanpo-kontsultak Lakuabizkarreko osasun-zentroan, Debagoieneko Ospitalea handitzea (proiektua), Donostia Ospitalean erradioterapiako zerbitzua (proiektua) eta ZIU handitzea (Arantzazu eraikina), Galdakao, Basurtuko Ospitaleko bronkoskopia eta endokrinologiako eta erradiologiako zerbitzua, Gernikaldea burutze arineko zentroa eta elektrofisiologia eta baskularreko unitatea, ZIU pediatrikoa (proiektua) Gurutzetako Ospitalean.

Lehen mailako asistentzia

Osasun-zentro berriak eraikitzea zerbitzua herritarrei hurbiltzeko eta denboraren joan-etorria dela-eta egungo beharretara moldatu beharra daukaten funtzionalitatea eraberritzea

► Osasun-zentro berriak eraikitzea

Osasun-zentroak: Gazalbide-Txagorritxu, Alegria (proiektua), Amara, Zarautz, Zumaia, Beasain, Mutriku (proiektua), Bermeo, I Algorta (proiektua), Plentzia, Sodupe..

► **Eraberritze lanak osasun-zentroetan**

Erandioko osasun-zentroa handitzea, Areitza Doktorearen anbulatorioa eraberritzea eta Laudioko osasun-zentroa eraberritu-errehabilitatzea.

Asistentzia psikiatrikoa

- Eremu sanitario honetan azpiegitura egokitzea zerbitzu pertsonalizatua eta kalitatekoa eman ahal izateko.
- Erreterriako osasun mentaleko zentroa eraikitzea, eguneko ospitalea eta terapia okupazionalerako aldea Zamudioko Ospitalean.

EGOKITZEKO, KONPONTZEKO ETA MANTENTZEKO OBRAK

Zerbitzu orokorrak egokitzea, zentro sanitarioetan urbanizatzea, fatxadak konpondu eta mantentzea dagoen eskaera-moldatuz eta horien hondatzea saihestea

- Zerbitzu orokorrak: eraberritze-lanak Txagorritxu Ospitaleko atondoan, zenbait osasun-zentrotako bezeroak atenditzeko eremuak, "A" aldea handitzea Gurutzetako Ospitalean (proiektua).
- Fatxadak, teilatuak eta urbanizazioa: fatxadak Lezako Ospitalean, Donostia Ospitalean barne-loturak, Errekaldeko anbulatorioko fatxadak, Areitza Doktorearen anbulatorioarako sarbideak, Zaldibarko Ospitaleko teilatuak (2. fasea), San Eloy Ospitalean artxiboa eraberritzea

INSTALAZIOAK

Zerbitzu orokorretako eta segurtasunerako instalazioak hobetu eta berritzea, unitate asistentzialen funtzionamendu ona bermatu ahal izateko.

► **Segurtasunerako instalazioak**

- Zenbait zentrotan emergentziako eta suen kontrako planetara moldatzea

► **Instalazioak: jasogailuak, berogailua/aire egokitua eta ur-tutuak**

- Igogailuak/jasogailuak birjartzea: Santiago, Donostia, Bidasoa, Basurtu, Galdakao eta Gurutzetako ospitaleak, Amara eta Irungo anbulatorioak eta Arrigorriaga, Basauri eta Gorliz eta Portugaleteko osasun-zentroak.
- Gasifikazioa Txagorritxu eta Gorlizko Ospitaleetan eta Aguraingo osasun-zentroan
- Ur beroa eta/edo hotz sanitarioa: Santiago, Txagorritxu eta Mendaroko Ospitaleetan.

► **Instalazio elektrikoak**

- Instalazio elektrikoak moldatzea talde elektrogenoan Santiago Ospitalean, koadro elektrikoa Donostia Ospitalean (Arantzazu eraikina) eta instalazio elektrikoak La Paz anbulatorioan, Zaldibarko Ospitalean eta Galdakaoko Ospitalean.
- Datuak prozesatzeko zentroak: Erakunde Zentrala eta Basurtuko Ospitalea

► **Zenbait instalazio**

- Dikomizazioa, erradiologia eta garraio pneumatikoa eta informazio-sistema Donostia Ospitaleko UZIn, garraio pneumatikoa Zumarragako Ospitalean, zenbait Gorlizko Ospitalean eta transformazio-zentroa San Eloy Ospitalean.

EKIPAMENDUA ETA GOI-TEKNOLOGIA

Osakidetzaren deskapitalizazioa saihestea, zaharkituta dauden aktiboak birjarritz, Plan Estrategikoaren helburuak lortzeko laguntzen diguten teknologia berriak sartzeaz gain

► **Zentro asistentzial berrietako eta berritutako ospitale-aldeetarako ekipamendua**

► **Zaharkituta dauden ekipoak berritzea pazientearentzako zerbitzua hobetzeko asmoz**

Anestesia-mahaiak, monitorizazioa, kirolfano-mahaiak, ekipamendu kirurgikoa, erradiologia, arnasgailuak, ekografoak, geletarako berrekipamendua eta esterilizazioa.

► **Zentroei goi mailako teknologia hornitzea**

lkerkuntza, garapena eta berrikuntza” 5. helburu korporatiboarekin bat etorritik, sanitatearen eremuan ezagutzak garatzen errazten dituzten zerbitzu eta teknologia berriak sartzen dira.

- Ekokardioa Santiago Ospitalean, angiografoa Txagorritxu Ospitalean, Basurtuko Ospitalean azeleragailua, gamma kamara eta ekokardioa, angiografia eta ekokardioa Galdakaoko Ospitalean eta angiografia, ekokardioa eta OTA (64 koroa) Gurutzetako Ospitalean.

Informazio sistemak eta teknologiak

GARAPEN-ARLOA

Lehen Mailako Atentzioa: 3S-Osabide

- ▶ Mantentze zuzentzailea eta ebolutiboa.
- ▶ WEBaren bidezko Aurretiazko Zitaren zerbitzua garatzea, Osanet atarian integratua.
- ▶ Laudioko O.Z. errezeta elektronikoaren proiektuan sartzea.

Historia Klinika Digital Bakarra: e-Osabide

- ▶ **Txagorritxu Ospitalean modulu hauek abiaraztea:**
 - Segurtasuna eta sarbideak
 - Antolakuntzako egitura
 - Pazienteak kudeatzea
 - Onarpena
 - Programazio Kirurgikoa
- ▶ **San Eloy Ospitalean Errehabilitazioko modulua abiaraztea**
Farmaziako modulua garatzea eta zitazio eta erradiologiako modulua egokitzea.

Laborategiak

Gaur egungo azpiegiturak handitu eta berritzea.

- ▶ Erabilgarritasun Handia Txagorritxu Osp.
- ▶ PSM (Laginen jarraipena eta trazabilitatea) Txagorritxu Osp. eta Olagibelgo anb.l

Transfusioen Euskal Zentroa

- ▶ Odol-bankua kudeatzeko informazio-sistema berria ezartzea.

Osakliniker

- ▶ Pazienteak klinikoki koherenteak diren taldeetan sailkatzeko informazio-sistemaren migrazio teknologikoa, Osakliniker izena duena.

EKOIZPEN ARLOA

Ahots eta datuen sare korporatiboa

- ▶ Ahots eta datuen sare korporatiboaren hedatze eta gaurkotze teknologikoa.
 - Osakidetzako zenbait zentrotako eremu lokaleko sareak berritu eta handitzeko beharrezkoak diren horniketa eta zerbitzu guztiak urte anitzetan burutzea. Gurutzeta, Txagorritxu, Debagoiena, Bidasoa, Gorliz, Bermeo, Zaldibar, Zamudio, Santa Marina eta Basurtuko ospitaleetan eta Arrasateko anbulatorioan.
- ▶ Osakidetzako datuetako sare pribatua hedatzen jarraitzea.
 - Lehen Mailako Atentzioko sarea hedatzeko III. fasea, Lehen Mailako Atentzioko eta Atentzio Espezializatuaren arteko komunikazioa optimizatzeko asmoz
 - Sareko zenbait zentrotan erabiltzen den ekipamendua berdimentsionatzea erabiltzaile berriak sartzen utzi ahal izateko.

- ▶ Digitalizaturiko telefonoguneak zabaltzen jarraitzea eta egon daudenak egokitzea teknologiaren aldetik.
- ▶ Telefonia eta datuen azpiegitura hobetzeko proiektu berriak atera, joera berriak aprobetxatzeko eta egungo sareek jasaten dituzten zerbitzuen integrazio hobea lortzeko, beharrezkoak diren komunikazioko eta informaziora sarbideko behar guztien euskarri izateaz gain.

Mikroinformatikako parke korporatiboa

- ▶ Mikroinformatikako osagarriak erosi –ekipoak eta softwarea- oraingo parkearen eta osagarrien berrikuntza teknologikoarekin korporazioko aplikazio informatikoen ezarpenarekin jarraitzeko, bai lehen mailako atentzioaren arloan, bai espezializatuan.

Informazio sistema korporatiboari eusteko azpiegitura (hardware/softwarea)

- ▶ Atentzio Espezializatuko (e-Osabide) informazio-sistemaren arkitektura teknologiko zentralizatuaren produkzio-ingurua birdimentsionatzea, ataza hauek bete ahal izateko:
 - Arlo klinikoei dagozkien modulu berriak produkzioan jartzea.
 - Modulu berriak produkzioan jartzea San Eloy, Santa Marina eta Gorlizen.
 - Onarpen eta Jarduerako Eskabideen Kudeaketa moduluak ezartzea zentro berri bitan.
- ▶ Gurutzeta, Txagorritxu eta Donostia ospitaleetarako 1997an jarritako azpiegituraren berrikuntza teknologikoaren II. fasea, bezero/zerbitzariarekin garaturiko informazio sistemari euskarria emateko lurralde historiko bakoitzeko, baita ORACLE datu-basea duen UNIX sistema operatiboa ere. Informazio sistema horien artean, hauexek aipa daitezke, nabarmenenak baitira: Zaineri (Erizaintzako zainketen kudeaketa), Infogen (Alta-txostenen sortzailea), InforRX (Erradiologia txostenen sortzailea), PCH (Ospitaleko postu klinikoa), CLINIC... Gainera, back-up euskarria eman nahi zaio kontratatatu beharreko azpiegitura horri, Osakidetzaaren instalazio nagusietatik kontratatuko dena.
- ▶ 3s-Osabideren aplikazio-zerbitzariaren hardware-azpiegitura handitzea, 4.000 erabiltzaile konkurrente hartzeko eta 5.500 erabiltzaileari aterpe emateko. (Urte anitzekoa 2006-2007).

Sare mikroinformatikoaren eboluzioa - migrazioa

- ▶ Sare mikroinformatikoaren eboluzioari buruzko urte anitzeko proiektua Novell Network egungo ingurunetik zerbitzarietan eta Windows NT Workstation-en postuetan, Microsoft Windows Server eta Windows inguruetara, hurrenez hurren. Laneko egungo plataforma azken joera teknologikoetara egokituko da, Eusko Jaurlaritzak informazioaren teknologien arloan definituriko estandarren barruan.

ALDABIDE ETA GIZABIDE ARLOA

Curriculum Vitae eta Lanbide Garapeneko aplikazioa

- ▶ Erakundean onartutako Lanbide Garapeneko Eredua inplementatzeko beharrezkoak diren lanabes informatikoak.

V. Prozesuak (jarduera)

D Gogoeta batzuk jarduerari buruz

Lehen Mailako Atentzioa

Familiako medikuntzako kontsulta medikoen guztizko kopurua 29ren inguruan egonkor samar mantentzen da eta pediatrian apur bat igo da eguneko 23 bisitara, gorako joera txikia erakutsiz. Erizaintzako jarduerari dagokionez, erizaintzako kontsultan azpimarratzekoa da erizaintzako jardueraren igoera, nahiz eta aldeak topatu diren zenbait jarduera sailkatzeko orduan eta horregatik datua gorantz aldatuta egon daiteke. Etxeko atentzioa pixka bat igo da.

Gripearen kontrako txertaketaren estaldura aurreko urtekoaren antzekoa da, %70,9koa da 65 urtetik gorakoengan.

Atentzio espezializatua

Akutuentzako ospitaleen jarduera azaltzen duten oinarriko adierazleek erakusten dute 2006an ingresatutako pazienteen kopurua %4 igo dela, guztira egonaldien kopurua %2,3 jaitsi dela eta, era berean, batezbesteko egonaldia egun erdia jaitsi dela 2005aren aldean eta horrela aipatu batezbesteko egonaldia 6 egun laburragoa da.

Egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan ikusten da ingresuen kopurua %8 jaitsi egin dela 2005koarekin alderatuta eta egonaldien kopurua ere %7,9 jaitsi da aurreko urtearen aldean.

Jarduera kirurgikoari dagokionez, interbentzioen guztizko kopurua %11,7 igo da 2005koaren aldean.

Kanpo-kontsulten arloan, guztira izandako kontsulten kopurua (109.396) %3,2 igo da 2005. urtearekin alderatuta eta igo egin dira bai lehenengoak (%3,9) bai hurrengoak (%2,8). Hurrengo/lehenengoen tasa 2,12 da, aurreko urtekoaren oso antzekoa dena.

Ospitalizazioaren alternatibetan jarduera igo egin da **eguneko ospitale kirurgikoan**, %11,7ko igoera izan duena aurreko urtearen aldean eta **eguneko ospitale medikoaren** aurretiazko prozedurak %14,7 igo dira iazkoarekin alderatuta. **Etxeko ospitalizazioko** programan batera igo dira ingresuen kopurua eta etxeko bisitak.

Osasun mentala

- ▶ **Ospitalez kanpoko osasun mentaleko** lehenengo kontsultetan 2005. urtearen aldean 636 kontsulta gutxiago izan dira eta jaitsiera txikia gertatu da berrasieretan (%0,10) kontsulten guztizko kopuruan (%0,55) aurreko urtearen aldean.
- ▶ **Egonaldi laburreko ospitaleetako unitateetan (haur-gazteak)** ingresuen kopurua %14,29 igo da eta altak %12,25.
- ▶ **Egonaldi laburreko ospitaleetako unitate psikiatrikoetan (helduak)** ingresuen kopurua %0,59 igo da eta egonaldien kopurua %0,97 jaitsi da.
- ▶ **Egonaldi ertaineko ospitaleetako unitateetan** ingresuen kopurua %5,81 eta egonaldiena %1,93 jaitsi da 2005. urtearen aldean.
- ▶ **Errehabilitazio psikiatrikoko ospitaleetako unitateetan** ingresuak %10,36 jaitsi dira eta egonaldiak %16,36 igo dira.
- ▶ **Egonaldi luzeko eta psikogeriatrico ospitaleetako unitateetan** egonaldien kopurua %1,26 jaitsi da aurreko urtearen aldean.
- ▶ **Ospitaleen menpeko eguneko ospitale psikiatrikoek** eta Bitarteko beste egitura batzuek izena aldatu dute, antolakuntza eta estatistikako ondorioetarako, eta **Eguneko jarduera egituratuen zerbitzuak** izenaren barruan bateratu dira.
- ▶ **Ospitaleen menpeko pisuek** ere izena aldatu dute beste honen ordeztu: Ospitalez kanpoko egoitza-egiturak

HIESa prebenitu eta kontrolatzeko Planaren datuek jaitiera garrantzitsua erakusten dute GIBak eragindako infekzio berrien kopuruan (49 paziente gutxiago) 2005. urtearen aldean. Beherako joera mantentzen da EAEn bizi direnen artean aurreko urtearekin alderatuta (7 kasu gutxiago). Terapia hirukoitza aurten ere gero eta gehiago aplikatzen da, terapien %82an. Aurten GIBak eragindako 151 kasu detektatu dira, iaz baino kasu bat gutxiago.

Titietako minbizia goiz detektatzeko programan zitatutako emakumeen kopurua 133.102 izan da, hau da, iaz baino 19,19 gehiago. Mamografia basalen kopurua %17,58 igo da eta birbalorazioak %9,82. Erreferentziako ospitaleetara bideratutakoak ere %18,25 igo dira eta 2006an detektatutako minbizien kopurua 404 izan da, eta 2005ean 305 izan zen.

Aurten handitzen hasi dira adin-tarteak Titietako Minbizia Goiz Detektatzeko Programaren estalduran.

Haurren hortzak zaintzeko programak 96.565 atenditu ditu, programaren estaldura iaz baino %1,23 handiagoa izan delarik. Gainera, hitzartutako zentroetako atenditze-proportzioak (%91,02) igotzen jarraitzen du, Osakidetzaren aldean.

Transplanteen programan emaille errealen kopurua EAEko populazioko milioi biztanleko %48,4 da eta 2005ean %43,4 izan zen.

Haurren gorria goiz detektatzeko programaren garapenak aurrera dirau erditze-aldeak dituzten ospitaleetan. Jarduera globala modu zentralizatuan biltzen da Asistentzia Espezializatuko Zuzendariordetzan eta Osakidetzako ospitaleetako eta zentro pribatuetakoko datuak barne hartzen ditu. Zentro pribatu horietako datuak bidaltzen dira Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzaren bitartez.

Gurutzetako Ospitaleko datuak albo batera tusita (2006ko urtarril eta otsaileko datuak bakarrik bidali dituelako), esan daiteke estaldura-ehunekoa altua dela eta %99tik gorakoa dela, aurreko urteotan bezala. Hipoakusiak parte hartzen duten haurren %0,1350ei detektatzen zaizkie eta bi aldeko hipoakusia haurren %0,0945i.

Programaren egungo egoera aztertze eta hobetu beharreko arloak detektatzeko helburu nagusiaz, Ostebari beka komisionatua eskatu zaio.

Lehen mailako atentzioko jarduera

OINARRIZKO ADIERAZLEAK

2005

2006

Medikuak

Familiako medikuntza

Bisitak guztira:	8.197.535	8.303.667
Zentroan	8.018.081	8.141.151
Etxean	179.454	162.516
Bisitak eguneko	29,45	29,02
Maiztasuna	4,14	4,18

Pediatría

Bisitak guztira:	1.526.310	1.531.931
Zentroan	1.522.829	1.528.986
Etxean	3.481	2.945
Bisitak eguneko	22,65	23,3
Maiztasuna	6,51	6,65

Erizaintza (Gipuzkoako Mendealdeak KONTSULTAK ZENTROETAN atalean hauek kontabilizatzen ditu:

PROBA DIAGNÓSTIKOAK, SENDAKETAK ETA EMANDAKO TRATAMENDUA ETA IMMUNIZAZIOAK)

Kontsultak zentroetan	3.825.644	4.463.285
Kontsultak zentro, erizain eta eguneko	13,44	19,56
Etxeko bisitak	419.902	461.900
Etxeko bisitak, erizain eta eguneko	1,48	1,62
Proba diagnostikoak	2.709.851	2.307.437
Proba diagnostikoak, erizain eta eguneko	9,52	8,02
Sendaketak eta emandako tratamenduak	1.285.087	1.117.609
Immunizazioak	560.883	542.350

Emaginak (*)



Bisitak	273.882	276.025
Bisitak emagin eta eguneko	10,50	10,67
Erdiberrientzako etxeko bisitak	3.139	2.677
Etxeko bisitak emagin eta eguneko	0,12	0,10

Etengabeko Atentzioko Gunea

Bisitak		
Medikuntza	427.192	439.725
Erizaintza	242.969	249.574

Gripearen aurkako Txertaketa-kanpaina

	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Guztira jarritako txertoak	311.750	335.335	373.060	368.114	395.319	376.246
65 urte edo gehiagokoei jarritako txertoak	244.599	262.260	279.269	271.751	275.493	277.583
65 urte edo gehiagokoen estaldura	%65,0	%67,3	%72,0	%69,4	%70,0	%70,9
65 urte edo gehiagoko instituzionalizatuen estaldura	%95,7	%97,2	%98,3	%97,6	%97,4	%98,7



D Akutuentzako eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetako jarduera

OINARRIZKO ADIERAZLEAK

2005

2006

Ospitalizazioa

Oheak	4.802	4.743
Egonaldiak	1.447.701	1.434.532
Ingresuak	221.061	229.272
Errotazio-indizea	46,04	48,34
Erditzeak	17.510	17.742

Jarduera kirurgikoa

AOP interbentzioak	59.950	64.241
ALP interbentzioak	7.472	8.055
AOU interbentzioak	16.913	17.236
ALU interbentzioak	2.333	2.347
Goizekoa eta urgentea guztira *	86.668	91.879
Programatutako ezohiko kirurgia	12.853	16.815
Jarduera kirurgikoa guztira *	99.521	108.694
Kirurgia txikiko interbentzioak	39.696	46.834

Urgentzietako jarduera


Atenditutako urgentziak	913.371	928.270
Ingresatutako urgentziak	129.214	128.691
Urgentzien presioa	%58,45	%56,13

Jarduera anbulatorioa


Lehenengo kontsultak	1.117.036	1.160.844
Hurrengo kontsultak	2.384.078	2.449.733
Kontsultak guztira	3.501.114	3.610.577
Lehen/hurrengo kontsulten indizea	2,13	2,11

* Kirurgia txikia kanpo


Ingresu-kopurua: akutuentzako ospitaleak, 2000-2006




Interbentzio-kopurua: akutuentzako ospitaleak, 2000-2006



Atenditutako urgentzia-kopurua: akutuentzako ospitaleak, 2000-2006



Kontsulta-kopurua: akutuentzako ospitaleak, 2000-2006



OSPITALIZAZIOAREN ALTERNATIBAK**2005****2006****Etxeko ospitalizazioa**

Konsultartekoak	5.149	5.673
Ingresuak	4.480	5.013
Egonaldiak	78.913	83.894
Etxeko bisitak	46.038	48.182
Konsultak telefonoz	11.504	12.695

Kirurgia handi anbulatorioa

Ebakuntzak	33.717	38.909
Guztira programatutako kirurgiaren gainean (%)	42,00	43,66

Eguneko ospitale medikoa

Prozedurak / jarduerak	154.877	177.740
------------------------	---------	---------

Egonaldi laburreko unitatea

Oheak	174	133
Ingresuak	13.210	11.710
Egonaldiak	36.485	29.265

Zainketa aringarrietako unitatea


Oheak (egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak)	72	76
Ingresuak	1.035	1.171
Egonaldiak	14.192	18.695

INGRESUAK ETA KONTSULTAK ZERBITZUKO

ZERBITZUAK	Ingresuak		Kontsultak	
	2005	2006	2005	2006
Alergologia	23	20	49.799	56.307
Anestesiologia	4.116	4244	59.346	64.202
Kardiologia	17.113	17.068	151.356	152.203
Zainketa aringarriak	835	936	1.040	901
Dermatologia	142	167	186.228	197.225
Digestio aparatua	10.766	11.649	138.498	143.541
Endokrinologia	952	946	116.963	121.434
Gaixotasun infekziosoak	2.749	2.835	24.585	23.614
Hematologia	2.229	2.205	66.949	71.661
Medikuntza intentsiboa	7.524	7.655	3.973	4.172
Barne-medikuntza	23.457	23.100	51.803	54.407
Medikuntza prebentiboa	0	0	10.368	12.583
Nefrologia	2.119	2.174	31.838	33.607
Neumologia	14.370	13.510	96.433	98.484
Neurologia	7.501	7.348	98.091	103.799
Onkologia medikoa	4.057	4.606	48.829	55.906
Onkologia erradioterapikoa	432	554	26.248	27.576
Pediatría	9.022	9.914	84.533	91.851
Psikiatria	4.568	4.615	20.435	20.278
Errehabilitazioa	1.896	1.805	151.339	153.243
Erreumatologia	1.150	997	57.744	59.898
Minaren unitatea	315	447	17.025	17.437
Bihotz-hodietako kirurgia	1.227	1.144	1.453	1.396
Kirurgia orokorra	24.512	26.015	148.162	152.530
Aurpegi-masailletako kirurgia	1.278	1.442	38.472	39.388
Kirurgia pediatrikoa	3.013	3.062	19.289	19.248
Kirurgia plastikoa	1.691	1.757	25.795	27.599
Toraxeko kirurgia	1.465	1.588	3.347	3.872
Hodietako kirurgia	4.873	5.297	37.462	40.695
Neurokirurgia	3.467	3.518	12.704	13.590
ORL	6.509	6.902	227.080	229.532
Oftalmologia	17.411	19.339	380.628	395.390
Tokoginekologia	30.920	31.113	459.543	461.029
Traumatologia	21.915	23.662	475.947	488.762
Urologia	8.920	9.042	170.865	167.755


AKUTUENTZAKO OSPITALEETAKO ALTAK: 25 DTE OHIKOENAK

DTE	Izena	2005		2006	
		Altak	%	Altak	%
39	Kristalinoaren gaineko prozedurak, erauzketarekin edo erauzketarik gabe	13.930	6,54	15.516	7,01
373	Erditze ez konplikatua	12.036	5,65	11.911	5,38
541	Arnas trastornoak, infekzioak, bronkitisa eta asma izan ezik, KK Nagusiarekin	5.982	2,81	5.241	2,37
372	Erditze konplikatua	3.130	1,47	3.406	1,54
359	Umetokiaren eta anexuen gaineko prozedurak, in situ kartzinomagatik edota prozesu ez-gaiztoagatik, KKrik gabe	3.070	1,44	3.278	1,48
127	Bihotzeko gutxiegitasuna eta shock-a	3.181	1,49	3.181	1,44
162	Iztondoko eta izterreko herniaren gaineko prozedurak, Adina > 17, KKrik gabe	2.398	1,13	2.886	1,30
430	Psikosia	2.221	1,04	2.218	1,00
222	Belaunaren gaineko prozedurak, KKrik gabe	1.889	0,89	2.202	0,99
381	Haurgaltzea dilatazioarekin eta legratuarekin, aspirazioarekin edo histerotomiarekin	2.125	1,00	2.177	0,98
143	Bularraldeko mina	2.085	0,98	2.136	0,96
14	Atakea infartuarekin	1.786	0,84	2.057	0,93
55	Belarri, sudur, aho eta eztarriaren gaineko hainbat prozedura	1.802	0,85	2.002	0,90
371	Zesarea, KKrik gabe	1.759	0,83	1.905	0,86
818	Aldaka-aldaketa, konplikazioengatik izan ezik	1.686	0,79	1.889	0,85
243	Bizkarreko arazo medikoak	1.929	0,91	1.846	0,83
183	Esofagitisa, gastroenteritisa eta beste hainbat trastorno digestibo. Adina>17 KKrik gabe	1.565	0,73	1.722	0,78
119	Zainen lotura eta stripping-a	1.345	0,63	1.710	0,77
87	Biriketako edema eta arnas gutxiegitasuna	622	0,29	1.690	0,76
158	Uzkiaren gaineko prozedurak eta entorostomia, KKrik gabe	1.509	0,71	1.678	0,76
167	Apendize-erazketa edo apendizektomia, konplikaturako diagnostiko nagusirik gabe, KKrik gabe	1.663	0,78	1.662	0,75
229	Eskuaren edo eskumuturraren gaineko prozedurak, giltzadura-prozedura nagusiak izan ezik, KKrik gabe	1.478	0,69	1.622	0,73
208	Behazunbideetako trastornoak, KKrik gabe	1.504	0,71	1.568	0,71
494	Behazun-maskuriaren erazketa laparoskopikoa behazun-hodiaren azterketarik gabe, KKrik gabe	1.264	0,59	1.548	0,70
88	Biriketako gaixotasun butxatzaile kronikoa	1.884	0,88	1.518	0,69
GUZTIRA		213.090		221.484	



EGONALDI ERTAIN ETA LUZEKO OSPITALEETAKO ALTAK: 25 DTE OHIKOENAK

DTE	Izena	2005		2006	
		Altak	%	Altak	%
462	Errehabilitazioa	1.708	21,60	1.481	21,52
541	Arnas trastornoak, infekzioak, bronkitisa eta asma izan ezik, KK Nagusiarekin	1.548	19,57	1.180	17,14
127	Bihotzeko gutxiegitasuna eta shock-a	501	6,33	562	8,17
88	Biriketako buxaketazko gaixotasun kronikoa	468	5,92	424	6,16
544	Bihotzeko gutxiegitasun kongestiboa eta bihotzeko arritmia, KK Nagusiarekin	438	5,54	416	6,04
467	Osasun-egoeran eragina duten beste faktore batzuk	87	1,10	345	5,01
542	Bronkitisa eta asma, KK Nagusiarekin	288	3,64	309	4,49
97	Bronkitisa eta asma. Adina>17, KKrik gabe	171	2,16	123	1,79
89	Pneumonia sinplea eta pleuritisa. Adina>17, KKarekin	107	1,35	113	1,64
82	Arnas neoplasiak	106	1,34	99	1,44
87	Biriketako edema eta arnas gutxiegitasuna	77	0,97	88	1,28
96	Bronkitisa eta asma. Adina>17, KKarekin	78	0,99	82	1,19
569	Giltzurruneko eta gernubideetako trastornoak giltzurruneko gutxiegitasuna izan ezik, KK nagusiarekin	79	1,00	67	0,97
540	Arnas infekzio eta inflamazioak, KK Nagusiarekin	71	0,90	65	0,94
172	Neoplasia gaizto digestiboa, KKarekin	85	1,07	64	0,93
90	Pneumonia sinplea eta pleuritisa. Adina>17, KKrik gabe	74	0,94	63	0,92
256	Sistema muskulueskeletikoko eta ehun koknetiboko beste diagnostiko batzuk	26	0,33	61	0,89
14	Atakea infartuarekin	26	0,33	61	0,89
543	Zirkulazioko trastornoak, miokardioko infartu akutua, endokarditisa, bihotzeko gutxiegitasun kongestiboa eta arritmia izan ezik, KK Nagusiarekin	59	0,75	46	0,67
203	Gibel-behazunetako sistemako edo pankreako neoplasia gaiztoa	44	0,56	43	0,62
533	Nerbio-sistemako beste trastorno batzuk, salbu III, konbultsioak eta buruko mina, KKarekin	44	0,56	41	0,60
466	Ondorengo zainketak, neoplasia gaiztoaren historiarik gabe diagnostiko sekundario bezala	41	0,52	41	0,60
15	Istripu zerebrobaskularra ez-espezifikoa eta butxaketa prezerebrala infarturik gabe	53	0,67	38	0,55
552	Digestio-aparatuko transtornoak, esofagitisa, gastroenteritisa eta ultzera ez-konplikatuak izan sheik, KK Nagusiarekin	30	0,38	32	0,46
320	Giltzurruneko eta gernubideetako neoplasiak, >17 KK	51	0,64	30	0,44
GUZTIRA		7.909		6.883	



Asistentzia psikiatrikoa eta osasun mentala: jarduera

	2005	2006
Ospitalez kanpoko sare asistentziala (osoa)		
Lehenengo kontsultak	18.491	17.855
Berriz hasitakoak	8.599	8.590
Lehenengoak guztira	27.090	26.445
Hurrengo kontsultak	408.731	427.074
Bestelako jarduera batzuk	201.348	180.153
Paziente desberdinak	74.092	74.488
Berriak/Desberdinak	%24,96	%23,97
Hurrengoak/Lehenengoak	15,09	16,15
Bestelakoak/Pazienteak	2,72	2,42
Berriz hasitakoak/Lehenengoak guztira	%31,74	%32,48
Kontsultak guztira	637.169	633.672
Toxikomanietako programa		
Bitarteko helburuetako programa		
Kasu berriak	194	146
Paziente desberdinak	2.273	2.208
Guztira		
Kasu berriak	933	846
Paziente desberdinak	4.870	4.838
Haur eta gazteentzako psikiatriako programa		
Kasu berriak	2.331	2.312
Paziente desberdinak	6.426	6.528
Ospitaleetako egonaldi laburreko unitateak (helduak)		
Oheak	237	240
Ingresuak	5.098	5.147
Altak	5.111	5.105
Egonaldiak	78.395	77.577
Errotazio-indizea	21,51	21,45
Kontsultartekoak	2.451	2.687
Urgentzien presioa	72,01	71,44
Kanpo-kontsultak	21.713	23.247
Ospitaleetako egonaldi laburreko unitateak (haurrak)		
Oheak	19	19
Ingresuak	216	252
Altak	222	253
Egonaldiak	4.070	3.756

ASISTENTZIA PSIKIATRIKOA ETA OSASUN MENTALA**2005****2006****Ospitaleetako egonaldi ertaineko unitateak**

Oheak	132	130
Ingresuak	637	615
Altak	626	614
Egonaldiak	44.959	44.463

Ospitaleetako errehabilitazioko unitateak

Oheak	62	62
Ingresuak	193	175
Altak	187	176
Egonaldiak	18.230	21.815

Ospitaleetako egonaldi luzeko eta psikogeriatrico unitateak

Oheak	549	537
Ingresuak	91	
Altak	107	96
Egonaldiak	193.640	191.196

Ospitaleak ez diren egoitza-egiturak

Plazak	82	61
Tratamenduan dauden paziente desberdinen kop.		104

Ospitaleen menpeko eguneko ospitale psikiatrikoak (Osakidetzako sarekoak)

Plazak	168
--------	-----

Bitarteko beste egitura batzuk

Komunitate terapeutikoa (plazak)	42
Alkoholismoaren eguneko zentroa (plazak)	35
Alkoholismoaren eguneko ospitalea (plazak)	30
Psikiatriko eguneko ospitalea (plazak)	138
Lantegi okupazionala (plazak)	37
Eguneko unitatea (plazak)	17
Eguneko zentroa: hezkuntza-terapia	10
Errehabilitazio komunitarioko zerbitzua (paziente desberdinak urteko)	216
Errehabilitazio psikiatrikoko unitatea (paziente desberdinak urteko)	104

Eguneko jarduera egituratuen zerbitzua

Plazak	753
Tratamenduan dauden paziente desberdinen kop.	1.522
Egonaldi-kop.	225.622

Emergentziak (jarduera)

Irekitako gertakarien kop.

2005	2006
------	------

296.709	288.417
---------	---------

Gertakaria irekitzeko arrazoi ohikoenak

Informazioa	61.880	45.170
Kontsulta	41.937	40.837
Lekualdatzerik ez	11.679	15.612
Sukarra	19.188	12.792
Beste batzuk	14.120	11.438
Istripuak, pertsonak	44.401	34.521

Bizi-euskarri aurreratuko anbulantzien mobilizazioak

Lehen mailako atentzioa	11.226	13.357
Ospitaleen artean*	2.960	2.934*
Guztira	14.186	16.291

*Erizaintza duen anbulantzian ospitale batetik bestera egindako lekualdatzeak barne

KOORDINAZIO-ZENTROAK

2005	2006	%
------	------	---

1. Gertakariak

Araba	44.850	44.328	-1,16
Bizkaia	172.962	165.846	-4,33
Gipuzkoa	77.897	78.243	0,04
EAE	296.709	288.417	-2,79

2. Deiazen arrazoiak

Ez asistentzialak	61.880	55.750	-9,91
Asistentzialak	234.829	232.667	-0,92

3. Dei asistentzialei erantzutea

Baliabideak mobilizatu barik	60.480	63.826	5,53
Baliabideak mobilizatuz	174.349	168.841	-3,16

4. Mobilizatutako baliabideak

Erizaintza	2.800	2.735	-2,32
Medikuak	62.274	54.388	-12,66
Hitzartutako anbulantziak	14.496	14.807	2,15
Bizi-euskarri aurreratua	14.186	15.879	11,93
Erizaintza duen bizi-euskarria		2.768	
Oinarrizko bizi-euskarria	103.575	106.858	3,17

BIZI-EUSKARRI AURRERATUA**1. Mobilizazioak**

Lehen mailako asistentzia

Araba	1.719	1.750	1,80
Bizkaia	5.811	7.625	31,2
Gipuzkoa	3.700	3.982	7,6
EAE	11.230	13.357	18,94

Leku-aldatzeak

Araba	523	485	-6,51
Bizkaia	543	588	8,28
Gipuzkoa*	1.849	1861	0,64
EAE	2.915	2.934	0,65

2. Mobilizatzeko arrazoirik ohikoenak


Pertsonen istripuak	1.531	1907	24,5
Konortea galtzea	1.653	1722	-4,17
Toraxeko mina	1.373	1670	21,63
Disnea	1.028	1201	16,82
Trafiko-istripuak	1.017	940	-8,19

*Erizaintza duen anbulantzia ospitale batetik bestera egindako lekualdatzeak barne


Atentzio espezializatuko beste programa batzuetako jarduera

Hiesa prebenitzeko eta kontrolatzeko plana

GIBak eragindako infekzio berriak EAEko biztanleen artean, 2000-2006



HIES-kasuak EAEko biztanleen artean, diagnostikatutako urtearen arabera, 2000-2006



Abenduaren 31n antirretroviral tratamenduan zeuden pazienteak, 2000-2006

	31/12/2002		31/12/2003		31/12/2004		31/12/2005		31/12/2006	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Terapia bakuna	3	0,1	5	0,1	3	0,1	3	0,1	18	0,5
Terapia bikoitza	112	3,1	100	2,7	112	2,9	115	2,9	79	2,0
Terapia hirukoitza	3.071	86,1	3.037	80,5	3.120	81,7	3.230	82,0	3.510	91,1
Terapia lauokitza	294	8,2	580	15,4	533	13,9	541	13,7	233	6,0
Terapia boskoitza	88	2,5	47	1,2	50	1,3	49	1,2	11	0,3
Terapia seiokitza	--	--	2	0,1	2	0,1	2	0,1	2	0,1

Guztira	3.568	100	3.771	100	3.820	100	3.940	100	3.853*	100
---------	-------	-----	-------	-----	-------	-----	-------	-----	--------	-----

(*) Santiago Ospitaleko pazienteak sartu barik

Titietako minbizia goiz detektatzeko programa

HELBURUAK BETETZEA ETA JARDUERA

Sarrera

Euskadin minbizia prebenitu eta kontrolatzeko planak adierazitakoari jarraituz eta bideragarritasun-azterketa egindakoa, 1995eko azaroaren 29an TMGDP martxan jarri zen Arabako osasun-barrutian, fase pilotuan (funtzionamenduko lehenengo 6 hilabeteak). Horren ebaluazioaren ostean (1996ko uztaila) EAE osora hedatu zen (1997. urtean zehar), titietako minbiziak eragindako hilkortasun-tasa murrizteko helburu nagusiaz. Programa honen oinarria da alde biko mamografiak egitea bi urterik behin EAEko 50-64 urte bitarteko emakumeei.

2006ko HELBURUAK ETA EGINDAKO LAN NAGUSIAK

2006ko Helburuak

- ▶ EAEko hiru osasun-barrutietan Programako jarduerak burutzea Programarako diseinatutako adierazleen arabera.
- ▶ 5. itzulua bukatu eta ebaluatzea eta 6. itzulua martxan jartzea, Arabako eta Debagoieneko osasun-barrutian.
- ▶ 4. itzulua bukatu eta ebaluatzea eta 5. itzulua martxan jartzea, Bizkaiko osasun-barrutian.
- ▶ Xede-populazioa sentsibilizatzea.
- ▶ Profesional sanitarioak sentsibilizatzea.
- ▶ 2005eko TMGDPko erabiltzaileen gogobetetasun inkesta ebaluatu eta dibulгатzea.
- ▶ TMGDPko Detektatze Unitateetako operadoreentzako berme erradiologikoari buruzko ikastaro bat antolatzea.
- ▶ Adinagatik Programan bajak diren emakumeei euren erradiografiak itzultzea.
- ▶ Kalitate Erradiologikoko Bermerako Programaren lanekin jarraitzea.

2006an Egindako lanak


